

Demokrazia eta prozesu politikoa: *jarrera eta lehentasun sozialak*

Andoni Eizagirre
Asier Baztan

2024

Autoreak

**Andoni Eizagirre, Mondragon Unibertsitatea.
Asier Baztan, Mondragon Unibertsitatea.**

ISBN

978-84-09-65405-5

CC BY-NC

-
- 00 **Datu orokorren *peskizan*** 05
-
- 01 ***Legitimitate* demokratikoa** 07
-
- 02 **Guztion arazoak ebazteko
lehentasunak eta *ulermenak*** 10
-
- 03 **Parte-hartze *demokratikoei*
buruzko jarrerak** 21
-
- 04 **Printzipioak, eraginkortasuna
eta irizpide *zientifikoak*** 26
-
- 05 **Joko demokratikoaren
*propietateak*** 35
-
- 06 **Ondorioak eta *gogoetarako*
hainbat *ideia*** 43
-



Hitzaurrea

Arantzazulab demokraziaren berrikuntzarako laborategia da. Horretarako gobernantzaren eraldaketa sustatzen du, eta laborategiaren helburua lankidetzazko gobernantzan sakontzea eta berau hedatzea da, herritarrek ahalduzko, herri politiketan lankidetzazko gobernantza sustatzeko eta demokrazian sakontzeko. Laborategiaren azken helburua ere bada lankidetzarako kultura gizartean hedatzea, herritarren elkargune eta ikaste aktiboko topagune bihurtzea, eta herritarrek agenda publikoan duten inplikazioa eta partehartzea areagotzeko tresna berriak, hurbilpen eraldatzaileak eta ezagutza eskaintzea. Ekimen ezberdinak bertako zein nazioarteko askotariko eragileekin lankidetzak sareak sustatuz garatzen ditu, berrikuntza sustatuz, eta hausnarketa, ikerketa eta esperimentazioaren bidez. Laborategiaren egitekoaren oinarrian daude: berrikuntza eta ikuspegi eraldatzaileak txertatzea, lankidetzak sustatzea, nazioarteko ezagutza aurreratuekin konektatzea eta gure balio eta kulturen errotuta lan egitea. Arantzazulab-ek, Euskal demokraziaren berrikuntzaren epizentroan kokatu nahi du, erakundearen eta herritarren arteko harreman berriak irudikatu eta gauzatzeko.

Arantzazulab-ek sustatutako Ikerketa Elkargunea unibertsitate ezberdinekin ikerketa kolaborazioan egiteko espazio berritzailea da. Unibertsitate bakoitzaren banakako ikerketaren emaitzak batzera mugatu beharrean, Ikerketa Elkarguneak balio erantsia eskaintzen du: batetik, lankidetzazko hausnarketa eta ikerketa gune hau unibertsitate ezberdinekin batera diseinatu, aktibatu eta kudeatzen da; bestetik, laborategiaren esparruan ezagutza garatzeko oinarrizko ikerketa eta hausnarketa aurreratua sustatzen dira, ikerketa proiektu kolektiboak garatuz, beti ere unibertsitateen arteko lankidetzan. Elkargunearen izaerari lotuta, beste espazio eta foroetan gertatzen ez diren hausnarketak egitea eta ideia berriak sustatzea bilatzen da; jakintza arlo ezberdinetako ikertzaileak batuko dituen espazioa da. Hauek dira espazio honetan parte hartzen duten unibertsitate nagusiak: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea. Ikerketa lanak bi eremu nagusitan jorratzen ari dira: Demokrazia eta Lankidetzazko Gobernantza.

Azken urteotan Ikerketa-Elkargunearen gai nagusietako bat demokrazia izan da. Demokraziaren sasoia, kalitatea eta babes soziala ari gara ikertzen, gureari arreta ipinita, baina ikuspuntu konparatuari ere kontu eginda. Hori dela eta, hiru unibertsitateetako ikertzaileek batera eta elkarrekin arituta, besteak beste, 2023ko otsailaren 22 eta martxoaren 24a bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde bakoitzerako lagin esanguratsu bati elkarrizketa egiteko galdera-sorta egituratu eta itxia erabili zen. 18 urte edo gehiagoko biztanleriari zuzendua, lagina honela banatu zen: 1.022 pertsona Bizkaian, 661 Gipuzkoan, eta 490 Araban; beraz, 2.173 pertsona elkarrizketatu ziren guztira. Elkarrizketatuen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, udalerraren tamainaren arabera estratu proportzionalak erabiliz. Ondoren pertsonak sexuaren eta adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratu ziren.

Txosten honek, Andoni Eizagirre eta Asier Baztanen sinadurarekin, 2023ko otsailaren 22 eta martxoaren 24a bitartean gurean demokraziaren ulermenei buruz eginiko galdetegia du abiapuntuan. Kasu honetan, bi ikertzaileek galdetegiko hainbat galdera hautatu dituzte, zehazki prozesu politikoari lotuen dauden haiek, eta datu orokorren lehen analisi bat egin dute, arreta berezia ipinita adin-tarteei eta generoari. Gurean ere demokraziaren ulermen ezberdinak daude, eta txostenean hori ulertzeko ahalegina egin da. Irakurlea berehala jabetuko da gaurkotasan handiko emaitzen berri ematen zaigula, eta azkenaldian nazioartean oihartzun berezia izaten ari diren kontuak eta joerak gurean nola mamitzen ari diren ezagutzeko aukera eskaintzen zaigu. Zalantzarik gabe, txosten honetan jasotako datuek, eta hauei buruz Andoni Eizagirrek eta Asier Baztanek planteaturiko interpretazioek eta gogoetarako hipotesi berriek ere, gurean kultura demokratikoan sakontzeko leihoa zabaltzen digute.

00 — Datu orokorren peskizan

ArantzazuLabek 2023ko lehen hiruhilekoan galdetegi bat diseinatu eta bideratu zuen demokraziari buruzko ulermen sozialak ezagutzeko asmoarekin¹. Abiapuntuko hipotesia zen gurean demokraziaren ikuspegiak askotarikoak direla. Hori hala dela egiaztatuz gero, aitortu beharrean gaude gure jarrera, balorazio eta iritzi sozialak ere demokraziaren ikuskera ezberdinetatik formulatu ohi ditugula. Zalantzarik gabe, uste baino garrantzi handiagoko auzia da, besteak beste, gure arteko eztabaida publikoa (bere edukia, izaera, kalitatea) beste era batera interpretatzeko premia eta aukera irekitzen zaizkigulako.

Galdetegiko datu orokorrek balio izan ziguten jabetzeko hipotesia egiaztatzea izan daitekeela². Ipin ditzagun demokraziaren ulermen ezberdinei buruzko hipotesia onargarri egiten duten bi adibide. Lehen adibideari dagokionez, demokrazian zer osagai den nahitaezkoa galdetuta, batzuek (% 29,9) demokrazian «Herritar guztiak diru-sarrera duina izatea» hautatzen dute. Kasu horretan, demokraziaren balio estrintsekoa nabarmentzen da; demokrazia ez da zertan balio absolutu bat izan, eta ziurrenik azken helburua ere ez; bere balio instrumentalari (helbururen bat erdiesteko bitarteko izateari, alegia) aitortzen zaio lehentasuna.

Beste batzuek (% 32,8) «Pertsona guztiak berdin hartzen dituen sistema judiziala izatea» eta «Norberak pentsatzen duena beldurrik gabe esateko eskubidea izatea» (% 16,6) aukerak lehenetsi dituzte. Biak ere askatasun politikoari loturiko eskubideak dira, eta kontzepzio liberalak demokraziaren berezko balio (edo balio bereizle) gisa interpretatu izan ditu. Izaera ezberdineko item batek pisu erlatibo txikiagoa du: «Ordezkariek hautatzeko askotariko alderdiei botoa emateko aukera izatea» (% 9,8); kasu horretan, ostera, demokraziari buruzko ikuspegi minimalista hobetsi eta hauteskunde-prozeduraren bereizgarria nabarmentzen dela iradoki liteke.

Bigarren adibideak demokraziaren mekanikan ipintzen du arreta. Kasu horretan, askatasun politiko —demokraziaren printzipio intrintsekoa— zein metodoren bidez garatu lehenestea eskatu da: % 58,6aren ustez, prozedura demokratikoa «arazoak konpontzeko gure izenean jarduten

¹ Eizagirre, A. & Baztan, A. (2024): Demokraziari buruzko galdetegia: arrazoiketa bat. ArantzazuLab Ikerketak.

² ArantzazuLab (2023): Demokraziari buruzko ulermenak gurean. Oñati: ArantzazuLab.



duten ordezkariak boto bidez hautatzea» bada, % 34,4ak dio demokraziaren bere ulermenetik gertuago dagoela «arazoak konpontzeko beste antolaketa mota batzuk» aukera. Bi aukera ezberdin dira, eta oso kontuan hartzekoa da lehentasunen portzentajezko banaketa ere. Lanerako hipotesi bezala, behinik behin, zentzuzkoa dirudi adieraztea metodoari buruzko lehentasun sozial horiek, neurri batean behintzat, demokraziari eta horren balioak eta propietateak ulertzeko moduari lotuak daudela.

Galdetegiko lehen datu orokorreari kasu egitera, zera formulatzeko moduan gaude: ulermen ezberdinei kasu egin eta, haien esanahia eta zentzua ulertu ezean, nekez interpretatuko ditugu demokraziari buruzko jarrerak, pertzepzio sozialak eta portaerazko jarraibideak. Edonola ere, badago argitzea komeni zaigun beste auzi osagarri bat, eta ez da nolana hiko: ulermen beraren aldaera ezberdinei buruz ari garen, ala ulermen sakon-sakonean ezberdinez.

» Ulermen ezberdinei kasu egin eta, haien esanahia eta zentzua ulertu ezean, nekez interpretatuko ditugu demokraziari buruzko jarrerak, pertzepzio sozialak eta portaerazko jarraibideak. Gainera, ulermen beraren aldaera ezberdinei buruz ala ulermen sakon-sakonean ezberdinez ari garenaren auzia ere argitu behar da.

Demokraziari buruzko ulermen ezberdinak gehixeago xehatze aldera, datu orokorren azterketa deskriptiboa egin dugu. Hau izan da gure laneko prozedura: galdera batzuetan zentratu, galdera horietako datuen arteko harremanak esploratu, eta aldagai soziodemografiko oinarrikoenei kontu egin. Lan honetan, guztion auziak ebazteko lehentasun demokratikoarekin lotuen dauden galderak hautatu ditugu.

Datu orokorreari etekina ateratzeko asmotan, hau izango da gure lanaren egitura. Lehen atala legitimitate demokratikoan zentratzen da, eta demokraziaren babesa neurtuko dugu, ikuspegi ezberdinak aldagai soziodemografikoen arabera ere segmentatuz. Bigarren atalean, metodoaren gaineko lehentasunak bereizi, eta legitimitateari eta orientazio afektiboari loturiko adierazleekin zer harreman duten arakatu dugu. Hirugarren atalean, intentsitate eta erantzukizun-maila ezberdineko parte-hartze motei buruz galdetu, eta horiekiko jarrerak lehen bi ataletako gaiekin konparatuko ditugu, betiere, demokraziari buruzko ulermen ezberdinak gehixeago argitzen jarraitu dezagun.

Laugarren atalean, gobernuak lehenetsi beharreko ezaugarrietan, agintariei eskatzen diegun kompetentzietan eta erabaki politikoak hartzerakoan balioei,

esperientzia profesionalari eta irizpide zientifikoei zer-nolako garrantzia aitortzen diegun esploratuko dugu. Bosgarren atalean, demokraziaren propietate ezberdinekiko adostasun-mailari ipiniko diogu arreta. Ataletan aurrera egin ahala, ordura arteko datuak berreskuratu eta harremanen bilaketari eman diogu garrantzia, demokraziaren ulermen konbentzionala beste kontzepzio batzuekin alderatzen hasteko asmoak bultzatuta.

Azalpen deskriptiboak patroiz eta joera batzuk ikusteko aukera ematen digu, eta agerikoak diruditen aurreiritzi batzuk ezeztatu edota zalantzan ipintzeko informazioa ere biltzeko modua izan dugu. Seigarren eta azken atalean, lanean azaleraturiko hainbat galdera eta hipotesi modu esplizituan formulatu, eta sakonago lantzea merezi duten auziak gaineratuko ditugu. Horietako batzuk analisi deskriptibo berriekin osa daitezke; baina, beste batzuei heltzeko, premiazkoa izango da analisi estatistikoa, ziurrenik.

01 — Legitimitate demokratikoa

³ Claassen, C. (2020): *Does Public Support Help Democracy Survive? American Journal of Political Science*, 64 (1): 118-134.

⁴ Zhaotian L. & Przeworski, A. (2023): *Democracy and its Vulnerabilities: Dynamics of Democratic Backsliding. Quarterly Journal of Political Science*, 18 (1): 105-130.

⁵ Economist Intelligence Unit (2023): *Democracy Index, 2022*. The Economist; Freedom House (2023): *Freedom in the World. Global Freedom Status*. Freedom House; International IDEA (2022): *The Global State of Democracy Initiative. Global State of Democracy Indices*. IIDEA. Edonola ere, Diamond-ek tesi horiek eztabaidatu eta beste ikuspegi bat planteatzearen beharra iradokitzen digu: Diamond, L. (2015): *Facing Up to the Democratic Recession. Journal of Democracy*, 26 (1): 141-155.

⁶ Jukam, T.O. & Seligson, M. A. (1982): *Diffuse Support and Anti-System Political Behaviour: A Comparative Analysis. American Journal of Political Science*, 26: 240-263.

Galdetegiko lehen galdera —nazioarteko inkesta nagusien antzera— orokorra da, arrunta, eta aldi berean garrantzi handikoa: «Askotariko erregimen politikoak daude. Honako esaldi hauetatik zeinek zaude ados?». (G1 - Demokraziaren babes-maila neurtu nahi da)

Itxura batean, galderak hutsala dirudi, galderari emaniko erantzunak alde aurretik jakiteko modukoak balira bezala, eta jakinekora balitz bezala demokraziaren legitimitatea altua dela. Nazioarteko Ikerketa konparatuak, ordea, bi ebidentzia gutxienik azaleratu dizkigu: alde batetik, galdera horri sasoi historikoaren edo iritzi-giroaren arabera ematen zaion erantzuna aldakorra dela (izaera ebolutiboa); bestetik, erregimen demokratikoetan legitimitate-indizeak askotarikoak direla (emaitzen ugaritasuna).

Hori gutxi ez eta, sistema politikoen artean demokrazia aukera egokien bezala hautemateak ere laguntzen du haren egonkortasunean³. Mundu mailako dinamiken argitan, gainera, oraintsu erregimen demokratikoak ezarri eta egonkortzeko joera makaldu egin da, hainbat tokitan atzerakada demokratikoa bizkortu da⁴, eta erregimen autoritarioen manupean bizi diren eskualdeek gora egin dute⁵. Arrazoiketa ezberdin horiek balioztatzen dute demokraziaren legitimitateari eta babes-mailari buruzko galderak (dimensio normatiboa) uste baino garrantzi handiagoa duela, beraz⁶. Alde horretatik, baitezpadakoa da erregimen politiko ezberdinekiko lehentasunari buruz galdetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan (*ikus 1. taula*), % 88,4ak dio demokrazia beste edozein gobernu mota baino hobea dela. Ikerketa konparatuen argitan, erregimen demokratikoaren aldeko babes-maila oso altua da (batez besteko babes-maila hamarretik zazpi ingurukoa izan ohi da). Hala eta guztiz ere, arreta eman dezake gurean % 11,6ak demokraziaren aldeko jarrera baikorrik



ez adierazteak: horien artean, talde esanguratsuenak (% 5,4) dio erregimen politikoak bost axola diola («Ni bezalako jendeari erregimen demokratikoa edo ez-demokratikoa izatea bost axola zaio»), eta herritarren % 2,8ak zera dio: «Egoera batzuetan, erregimen autoritarioa hobea izan daiteke demokratikoa baino»; egin kontu beste bi aukerei ere: «Ez daki» (% 2,9) eta «Ez du erantzun» (% 0,5). Portzentaje txikiak direla jakitun izanagatik ere, lan honetan arreta berezia ipiniko diegu jarrera horiei, demokraziaren kontzepzio ezberdinetan zer efektu duten neurtzeko, besteak beste.

Demokrazia beste edozein gobernu mota baino hobea da.	88,4
Egoera batzuetan, erregimen autoritarioa hobea izan daiteke demokratikoa baino.	2,8
Ni bezalako jendeari bost axola zaio erregimen demokratikoa edo ez-demokratikoa izatea.	5,4
ED (Ez daki).	2,9
EE (Ez erantzun).	0,5

1. taula
Legitimitate demokratikoa (%)

— ITURRIA
ArantzazuLab, 2023.

Euskal soziometroak ere legitimitate demokratikoari buruzko galdera egin ohi du. Galdera berari buruzko serie historikoek erakusten digute demokraziaren babes-maila altua eta aldakorra dela; 2018an, % 82ko babesa jaso zuen erregimen demokratikoak, eta, urte horretan, 2012 eta 2023 urteetako seriean, beste hainbat inkestekin alderatuta, 4 eta 7 puntu arteko babes handiagoa da. Bestalde, demokraziaren legitimitate politikoak izan ohi dituen gorabehera txikiak ez dira izaten erregimen autoritarioaren mesedetan (hamahiru urtean zehar, % 4 eta % 5 artean mugitu da), baizik eta erregimen politiko ezberdinen artean alderik ez dagoela dioen aukeran eragiten du.

2010 eta 2023 urteetan zehar, «Niretzat ez dago alderik erregimen demokratikoa izan ala ez» aukeraren erantzun-tasa aldakorrak ziklo ekonomikoaren eta giro politikoaren garrantzia berresten du, zalantzarik gabe. Jakina, gure sasoi historikoan ziklo horiek gero eta laburragoak eta biziagoak diren heinean, datozen urteetan, hala nahi izatera, legitimitate demokratikoaren indizeak testuinguruko faktore haiekiko zer menpekotasun duen ezagutzeko aukera hobea izango dugu.

Nolanahi den, gurean legitimitate-indizea hain esanguratsua izaki, iradoki genezake demokraziari, sistema politiko egokiena dela irizteko, balio intrintsekoren bat (berezko balioen bat) aitortzen zaiola. Kasu horretan,

demokrazia berriaz da helburu. Gerta liteke, ordea, demokrazia babestea, beste era bateko eskaera sozialak aitortu eta bideratzeko joera, gaitasuna, irekiera edota eraginkortasuna hautematen zaiolako (balio estrintsekoa).

Gure galdetegira itzulita, demokraziaren babes-mailari buruz galdetu, eta gizon-emakumeen artean eta, bereziki, adin-tarteen artean, ezberdintasunak igar daitezke (ikus 2. taula). Soziometroan ere jarraian azalduko ditugun patroik berberak egiaztatu ditugu; inkesta haietan joerak nabarmenagoak eta sendoagoak dira, gainera.

2. taula Legitimitate demokratikoa. Generoa eta adin-tarteak (%)	Generoa		Adin-tarteak				Guztira
	♂	♀	18-29	30-45	46-64	≥ 65	
Demokrazia beste edozein gobernu mota baino hobea da.	87,8	89,0	82,7	88,6	89,7	90,8	88,4
Egoera batzuetan, erregimen autoritarioa hobea izan daiteke demokratikoa baino.	3,3	2,2	4,2	4,0	2,0	1,3	2,8
Ni bezalako jendea bost axola zaio erregimen demokratikoa edo ez-demokratikoa izatea.	5,8	5,0	9,9	4,5	5,8	2,8	5,4
Ez daki.	2,4	3,5	2,5	1,9	2,3	4,9	2,9
Ez erantzun.	0,7	0,3	0,7	1,0	0,2	0,2	0,5

— ITURRIA
ArantzazuLab, 2023.
Egileek osatua.

Erregimen demokratikoaren legitimitatea altua da (% 88,4), eta demokrazia babesten duten horien artean ez dago genero-ezberdintasunik; banaketa ia berbera da. Beste lehentasunen kasuan, ordea, portzentajeen banaketa ezberdina da: autoritarismoaren aldeko jarreraren alde badago (talde horretan gizonezkoak dira % 60a). Erregimen motari buruzko axola falta erakusten duten haien artean ere, gizonezkoak nagusitzen dira, baina tarte txikiagoarekin kasu honetan (% 53,8 eta % 46,2). Gainontzean, «Ez du erantzun» aukeran, gizonezkoak dira % 72,7a; emakumeak, aldiz, «Ez dakit» erantzunean nagusitzen dira, talde horretan % 59,4a izanda.

Edonola ere, erregimen politikoei buruzko babes-mailari dagokionez, adin-tarteetan emaitzak esanguratsuagoak dira. Esate baterako, adin-tarte gazteena (18-29 urte) da demokraziaren legitimitate politiko baxuena



adierazten duena (% 82,7) eta ia hamar puntura heltzen da (% 9,9) erregimen politikoak bost axola diela erantzuten dutenen portzentajea. Bien bitartean, adin-talde gazteenaren kasuan, % 4,2ak egoera batzuetan erregimen autoritarioa demokrazia baino hobea izan daitekeela adierazten du, eta erantzun-tasa antzekoa da 30-45 urteko adin-taldean ere (% 4). 45 urtetik gorakoen kasuan, oster, autoritarismoaren aldeko erantzun-tasak txikiagoak izateaz gainera, demokraziaren aldeko babes altuena 46-64 urte bitartean (% 89,7) eta 65 urtetik gorakoen artean (% 90,8) ematen da. Halere, bi adin-talde horiek ez dira talde homogeenok: 46-64 urtekoek erregimen motaren inguruko axola falta altuagoa (% 5,8) erakusten dute (helduenek % 2,8koa, eta, aldiz, «Ez dakit» aukera altuagoa).

Datu orokorrak aldagai soziodemografikoen arabera ezberdintzen badira, legitimitateari buruzko jarreretan nola-halako heterogeneotasuna igar daiteke, edo behintzat lehen ñabardura batzuk azaleratu beharrea gaude. Guztiarekin ere, lan honetan legitimitateari buruzko jarrera ezberdinak gehixeago ulertzen saiatuko gara.



Euskal Autonomia Erkidegoan, erregimen demokratikoaren legitimitatea altua da (% 88,4). Edonola ere, legitimitateari buruzko jarreretan nola-halako heterogeneotasuna igar daiteke eta adin-tarte gazteena (18-29 urte) da demokraziaren legitimitate politiko baxuena adierazten duena (% 82,7).

Guztion arazoak ebazteko lehenetsunak eta ulermenak

— 02

Demokraziari buruzko ulermen sozialak miatu eta bereizte aldera, galderetako batek, arazoaren ebazpenerako metodoan zentratuak, honela dio: «Zein da, zure ustez, honako bi aukera hauetatik demokratikoagoa? Alegia, demokraziaren zure ustetik gertuago dagoena?» (G4). Galdera zuzena eta gordina da, inondik ere, eta lehenetsun orokorren artean bereizketa egitera behartzen du (*ikus 3. taula*).

3. taula

Guztion arazoak
ebazteko lehentasun
demokratikoak (%)

— ITURRIA
ArantzazuLab, 2023.

Arazoak konpontzeko gure izenean jarduten duten ordezkariak boto bidez hautatu.	58,6
Arazoak konpontzeko beste antolaketa modu batzuk. Hala nola, autoantolaketa, zozketa bidezko parte-hartzea edota boto asanblearioa.	34,4
Ez daki.	6,0
Ez erantzun.	1,0

Lehenengo hautuaren alde («Arazoak konpontzeko gure izenean jarduten duten ordezkariak boto bidez hautatu») % 58,6a ageri da. Aukera horrek bat egiten du ordezkartzako prozesu demokratikoarekin; gizarte adiskidetu eta hobeago baten sinbolismoa ere izan daiteke askorentzat (demokrazia gatazkei modu baketsuan aterabidea emateko alternatiba politikoa da). Euskal gizartean, bitartekaritza kanalizatzeko egintza hori (hauteskunde lehiakorretan botoaren bidez ardurak esleitu eta herri-ordezkariak saritu eta zigortzeko prozesua), mobilizazio politiko jendetsuena ere bada⁷.

Honela formulatu genezake arrazoiketa normatibo bezala: (a) demokraziaren bereizgarria askatasun politikoa da; eta, zehazkiago, askatasun politikoa, beste hainbat eskubideren artean, (b) hauteskunde bidez eta sufragio unibertsal, berdin, aske eta sekretuan oinarrituz gauzatzen da; eta herri-ordezkariak legitimitate iturri hori izanda (ordezkartzaren balioa), (c) hauteskundeetako emaitzak, eta erabakiak gehiengoz hartzea, eta bere ondorenak ere, obeditu egiten ditugu (obedientzia politikoa); beti ere, (d) ohiko arauekin bat egin, beste alderdi politiko eta gizarteko erakundeetara legezko baldintzak bermatu, eta parte hartze askea, kontzientea eta arduratsua errespetatuak badira⁸. Hortik begiratuta, gurean demokraziaren ikuspegi minimalista eta formalak babes handia du, beraz.

Euskal soziometroetan ikus daitekeenez, gurean badago pertsona-talde bat herri-erakundeetan konfiantza altu samarra duena eta bere errendimenduaren balorazio nahiko positiboa egiten duena; haien kasuan, politikariei gaitasun teknikoa eta zintzotasun morala aitortzeak babes txikiagoa du, halere. Bestalde, ordezkartzako prozesu politikoak gizarteko segmentu batzuetan izan ohi du sinesgarritasun handiagoa (pertsona helduenak, ikasketa maila ertain-altukoak, okupazio eta diru-sarrera babestuenak). Neurri batean, demokraziaren funtzionamendu buruzko balorazio onargarria (a) espektatiba baxuak izateari edota (b) errendimendu altua hautemateari zor zaio.

⁷ Demokraziari buruzko teoretan, herri-agintarien aukeraketa prozesua dela eta, bi ikuspegi bereizi daitezke: atzera begirako botoa (kudeaketa eta balorazio ekonomikoa dira botoa emateko irizpidea) eta boto prospektiboa (ideologiari eta lehentasunari loturiko botoa). Botoaren erabakia argudiatzeko bi modu (eta irizpide sozial) horiei buruz, ikus Downs, A. (1957): *An Economic Theory of Democracy*. New York: Harper & Row; Ferejohn, J. (1986): Incumbent performance and electoral control. *Public Choice*, 50 (1/3): 5-25.

⁸ Pitkin H.A. (1967): *The Concept of Representation*. Berkeley: The University of California Press.



Galderaren ekarpen nagusia, ordea, beste datu honen azaleratzean datza: % 41,4ak ez ditu lehenesten hauteskunde-demokrazia eta erabakimen politikoaren eskuordetze ohikoa; % 34,4ak, ordezkariatzako prozesuen orde, eredu parte hartzaileak lehenetsi ditu, gainera.

Zalantzarik gabe, demokraziari buruzko ikuskera ezberdinak bereizi eta ulertze aldera, galdera esanguratsua dirudi, datu orokorren argitan behintzat. Izan ere, datuek, itxuraz bederen, (a) demokrazia hauteskunde bidez politikariak aukeratu eta erabaki politikoen legitimitatea eta balioa ordezkarietan (eta erantzukizunean) oinarritzearen mugak seinalatu; eta, (b) parte hartze politikoa zabaldu eta areagotzearen bidetik, gobernantza eraberritzeko eskaera berresten dute; jabe eta erantzule izateko, herrigintzarako araubideak berritzeko edota aldaketa sozio-politikoan parte-hartzeko nahimena ere bai agian, esperientzia demokratikoen argi-ilunen jakitun izan arren⁹.

Areago, gure kultura tradizionalen hainbat mendetan pertsonaren duintasunari eta elkarbizitzako auziei aurre emateko dispozio kultural eta instituzionalek esperientzia demokratiko oparoa erein dute. Horren adierazgarri da guztion auziak auzo-batzarkideek planteatu, eztabaidatu, argitu, erabaki, betearazi, kontu eman, epaitzeko zentzu komuna. Euskal kontzientzia horren oihartzunak ere iradoki litezke, datu orokorren behin-behineko azalpen osagarri bezala, beraz.

- » Ordezkariatzako prozesu demokratikoarekin alde % 58,6a ageri bada ere, % 41,4ak ez ditu lehenesten hauteskunde-demokratikoaren eta erabakimen politikoaren eskuordetze ohikoa. % 34,4ak, ordezkariatzako prozesuen orde, eredu parte hartzaileak lehenetsi ditu, gainera.

Modu askotara interpretatu genezake prozesu politikoa parte hartzean oinarritzeko lehentasun soziala; batzuen motibazio pragmatikoa eta funtzionala da, bestea, ostera, esentziala.

Batzuen ustez, ziurrenik, ordezkariatzako sistemaren diseinu instituzionalak noraeza ekarri du, edo bilakaera oligarkikoa ere bai¹⁰. Hori dela eta, politikan -eta bizitzako esperientzia ezberdinetan- eragiteko gaitasunean edo interesak mobilizatzeko bizipenetan dualtsun nabariak hautematen dituzte. Halako iritzi baten azterna subjektiboak ugariak eta askotarikoak dira: botere banaketarekiko errezeloa; politikari eta hautetsien aukeraketamekanismoekiko mesfidantza; adiskidekeriaren hautematea; komunitateko elkarteei askatasunean eta erabakitzeko ahalmenarekin aritzeko trabak ezartzea; aniztasun informatiborako ezintasunak.

⁹ Dalton, R. (2008): *Citizenship Norms and the Expansion of Political Participation*. *Political Studies*, 56 (14): 76-98; Norris, P. (2002): *Democratic Phoenix: Reinventing Political Activism*. New York: Cambridge University Press.

¹⁰ Hay, C. (2007): *Why We Hate Politics?* Cambridge: Polity Press.

Kasu horretan, ordezkartzako sistema politikoak, logika sistemikoaren mendekoa izaki, gizarteko segmentu bati, demokraziari buruzko beren kontzepzio herrigilea dela eta, disonantzia kognitiboa eta afektiboa eragiten dio; eta bikoiztasun hori txikitzeko, eta sistema politikoan ordezkartzako erregulatze arauak hobetzea eskatzeko, eta demokrazia indarberritzeko, eta gauzen inertzia hutsari loturiko espektatiba kontinuitate gaitzeko, modu bat dira mobilizazioa eta guztion arazoak beste era batera ebazteko aukerarekin bat egitea¹¹.

Alde horretatik, iritzi publikoaren arrazoiketa politikoa honela interpretatu dezakegu: parte-hartze mekanismoak berriro ireki eta sendotu behar dira, ezen (a) ordezkartzako erakundeak bakartu egin baitira eta (b) botere sistemikoa kontrolatzeko ahalmena galdu baitute¹². Iritzi hori dutenen artean, gehiago batek ordezkartzako prozesuekin bat egiten du, baina haren akatsak direla eta, demokraziaren funtzionamendua zuzentzeko aukerakotzat dituzte bestelako parte hartzeko arau eta prozesuak ere..

¹¹ Barber, B. (1984): *Strong Democracy: Participatory Politics for a New Age*. Berkeley: University of California Press; Cohen, J. (1989): *Deliberation and Democratic Legitimacy*, in Hamlin, A. & Pettit, P. (arg.): *The Good Polity: Normative Analysis of the State*, 17-34. New York: Blackwell; Dryzek, J.S (2002): *Deliberative Democracy and Beyond*. Oxford: Oxford University Press.

¹² Kontrolak bi eratakoak dira: kontrol bertikala (botere-banaketa eta *checks and balances*) eta kontrol horizontala (hauteskundeak eta legebiltzarraren autoritatea eta eskumen efektiboak). Bi kontrol horien ezintasuna dela eta, demokraziaren funtzionamendurikiko atsekabeak ordezkartzako prozesua parte hartze mekanismo berriekin aberasteko premia eragiten du.

¹³ Inglehart, R. (1977): *The Silent Revolution: Changing Values and Political Styles among Western Publics*. Princeton, New Jersey: Princeton University Press; Inglehart, R. (1997): *Modernization and Postmodernization. Cultural, Economics and Political Change in 43 Societies*. Princeton, New Jersey: Princeton University Press.

Guztiarekin ere, sentimendu demokratikoak interesen eta balioen kudeaketa hobe eta eskuzabal batekin lotzea (profesionalizazioa, adiskidekeria politikoa edota arau pribatua saihestuz, edo arinduz, eta alderdi-sistema ireki eta gizartearekin konektatuz), murriztegia da, gizarteko beste hainbat segmenturen kultura demokratiko alternatiboa interpretatzeko, noski.

Izan ere, zenbaiten zenbaiten kasuan, herritartasun eskubidearen egikaritzea aske eta arduratsua bitartekaritarik gabeko demokraziarekin soilik lortzen da (dominazio sistemikoa irauli eta erakunde berri eta ezberdinak ezartzearen bidetik, esate baterako). Linea zuzen bateko eskalaren polo banatan erabaki politikoak herritarrek ala ordezkariak hartu behar dituzten lehenestea galdetuko bagenu, gizarteko segmentu hau herritarrek erabakiak hartzeko muturrean kokatuko litzateke. Hortik begiratuta, erabakiak (a) herritarrek (b) mekanismo parte hartzaile eta zuzenen bidez (c) soilik legitimatu ditzakete.

Horien kasuan, prozesu politikoari buruzko lehentasunak esplikatu ahal izateko, sistema politikoarekin pozik ez egoteaz haratago, beste bi modu planteatu ditzakegu: (a) mobilizazio kognitiboaren efektua (pertsona horiek jakinmin, interes, konpromiso, hezkuntza-maila altuagoa dute eta gaituagoak sentitzen dira prozesu politikoan parte hartzeko)¹³; (b) auto-ubikazio ideologikoa (ezkertiarren artean metatzen da, orokorrean behintzat, eredu alternatiboak gauzatzeko lehentasuna). Kasu batean eta bestean, ohikoa izaten da partaidetza mekanismoak ezartzeko -eta ordezkartzako demokraziari uko egiteko- diskurtso sofistikuak adieraztea; herri-erakundeekiko mesfidantzagatik, funtzionamenduaren errendimendu kaskarrengatik eta politikarien gaitasun profesional eta moral apalengatik ez ezik, herritarren gaitasun tekniko eta sozialei buruzko konfiantzagatik ere bai, beraz.

Laburbilduz, jarrera sozial alternatiboen motibazioa gauza irekia eta



askotarikoa dela planteia genezake. Alde horretatik, batzuen kasuan sakoneko motibazioa (a) parte hartzea eta berdintasun efektiboa bilatzea izan daiteke; gizarteko segmentu horrek bere burua auzi politikoak ulertu eta politikan aritzeko gaituta ere sentitu dezake (*high internal political efficacy*) Baina, beste batzuen kasuan, ostera, (b) sistema parlamentarioari eta eskaera sozialen ugaritasunari iskin egin, eta alde bateko interesak ezarri nahia ere, motibazio posiblea eta probablea da (esate baterako, munduari zentzua euren kontaktak, errepertorio diskurtsiboak edota bizi-ohitura eta kode linguistikoak ematen diela uste sendoa izateagatik, edo politika borondatezko ekintza huts gisa ulertzeagatik).

Bigarren joera horrek ageriko arriskuak ditu, noski. Guztiarekin, esperientzia historikoak jakinarazten digu ohikoena dela parte hartze irekiko prozesuetan bitarkekaritza erreala gutxi batzuek soilik gauzatzea: iritzi publikoa taxutzeko edota formazio politikorako baliabideak (ezagutzak, pizgarriak, bitarteko materialak, denbora) dituzten haiekek, zehazki (“eliteak” eta “kontra-eliteak”, alegia).

» Gizarteko segmentu batzuetan hikoa izaten da partaidetza mekanismoak ezartzeko diskurtso sofistikatuak adieraztea; herri-erakundeekiko mesfidantzagatik, funtzionamenduaren errendimendu kaskarrarengatik eta politikarien gaitasun apalengatik ez ezik, herritarren gaitasunei buruzko konfiantzagatik ere bai, beraz.

Momentuz behintzat, demokrazia hitzaren azalpean eskaini ohi zaizkigun irizpide, eduki, asmo eta jokabide ezberdin horiek (parte hartzaileak, teknokratikoak, populistak) bereizi, eta formulatuta utziko ditugu, datuen esanahia alde aurretik emantzat jo ordez. Galdera (G4) dilema modura planteatu dugu, baina erantzunetan, gehientsuenen kasuan behintzat, ziurrenik, ordezkaritzako logika hobetu eta irekitzea eskatzen da; prozesu politikoak bi eredu aurkari gisa ulertu -eta alternatibak polarizatu- ordez.

Datu orokorrak aldagai soziodemografikoen arabera segmentatuz gero, gizon eta emakumeen artean aukera bien arteko banaketa berdintsua da. Alde horretatik, gizonezkoen % 36ak eta emakumezkoen % 32,7ak bat egiten du «beste antolaketa modu batzuk» aukeraren alde; horrek, bestetik, esan nahi du generoak ez duela aparteko efekturik aukera horren pisu erlatiboan (banaketa antzerakoa da: % 48 emakumeak eta % 52 gizonak).

Kasu honetan, galderari buruzko ezberdintasun nabariak adin-tartean artean igar daitezke (*ikus 4. taula*). Alde batetik, «Beste antolaketa moduak» aukerak bi talde gazteenetan du babes handiena; ia bi heren (% 62,3a) 45 urtetik beherako bi adin-taldeen artean metatu dira. Bestetik, 30-45 urtekoen artean gehiagok egin dute prozesu politiko alternatiboen alde. Azkenik, 65 urtetik gorako kasuan, demokrazia konbentzionalak hamarretik ia zortziren babesa jaso du. Joera ezberdin horiek beste galderetako datuetan berretsiko ditugu.

4. taula		18-29	30-45	46-64	≥ 65
Guztion arazoak ebatzeko lehentasun demokratikoak. Adin-tarteak (%)	Arazoak konpontzeko gure izenean jarduten duten ordezkariak boto bidez hautatu.	51,1	45,5	58,2	76,9
—ITURRIA ArantzazuLab, 2023. Egileek osatua.	Arazoak konpontzeko beste antolaketa modu batzuk. Hala nola, autoantolaketa, herritarren zozketa edota boto asanblearioa.	43,5	48,5	33,6	15,0
	Ez daki.	4,4	5,0	6,8	7,4
	Ez erantzun.	1,0	1,0	1,4	0,7

Bi adin-talde gazteenak generoaren arabera bereiziz gero (*ikus 5. taula*), 18-29 urte bitarteko gizon eta emakumeen lehentasunak ia berberak dira. Era berean, 30-45 urte bitarteko gizon zein emakumeek gazteagoek baino gutxiago egiten dute eredu konbentzionalen alde. Guztiarekin ere, 30-45 urte dituzten gizonezkoak dira «Arazoak konpontzeko beste antolaketa modu batzuk» aukera gehien hobetsi dutenak.

5. taula		Emakumeak		Gizonak	
		18-29	30-45	46-64	≥ 65
Guztion arazoak ebatzeko lehentasun demokratikoak. Talde gazteak eta generoa (%)	Boto bidez hautatu.	51,28	46,76	50,95	44,22
—ITURRIA ArantzazuLab, 2023. Egileek osatua.	Beste antolaketa mota batzuk.	43,59	45,73	43,33	51,15

Adinaren kasuan, ñabardura gehixeago egin daiteke (*ikus 1. irudia*). Alde batetik, «Beste antolaketa modu batzuk» aukera adinaren arabera segmentatuz gero, aldeak nabarmenak dira: hamarretik lau 30-45 adin-taldean daude, 65 urtetik gorakoak % 12 dira, eta beste bi adin-taldek antzerako pisu erlatiboa dute (lautik bat biek ere). Ostera, bi adin-talde gazteenak % 37a dira ordezkaria boto bidez hautatzeko aukeran.




1. irudia

Guztion arazoak ebazteko lehentasun demokratikoak. Adin-tarteen pisua (%)


— ITURRIA

ArantzazuLab, 2023.
Egileek osatua.

«Boto bidez ordezkariak aukeratzea»



«Beste antolaketa modu bat»



Azken unean, emaitzak oso ezberdin interpreta litezke arreta adin-taldearen lehentasunetan ala adin-taldeen aukeretan duten pisu erlatiboan ipini.

Galdera orokor bat egin genezake: belaunaldi-arrakala baten aurrean al gaude? (egin kontu 18-29 eta, bereziki, 30-45 adin-taldek galdera gehientsuenetan joera berezia dutela, eta patroi hori orokorra dela barometro politiko eta sozial ezberdinetan). Kasu horretan, galdera osa genezake: belaunaldi-arrakala hori, zer neurritan zor zaio (a) ordezkartzako demokraziari buruzko ulermen osagarri bati? ala (b) ordezkartzako sistemaren funtzionamenduarekiko gazteen gogobetetze-maila txikiagoari (motibazio erreaktiboa)? Jakina, ziur asko biek dute eragina; baina garrantzitsua litzateke euren pisu erlatiboa aletzea, bi motibazio aski ezberdin baitira.

Legitimitateari buruzko jarrerak (G1) eta guztion arazoei aurre emateko lehentasun demokratiko ezberdinak (G4) erlazionatuz gero, alde esanguratsuak nabarmendu daitezke (ikus 6. taula). Alde batetik, hauteskunde-ordezkaritzako eredua gehien hobesten dutenek bat egiten dute erregimen politiko demokratikoarekin; erregimen demokratikoaren aldekoen artean, halere, heren batek arazoak beste bide batzuetatik ebaztearen alde egiten du. Metodo alternatiboekin bat egiteak oinarri demokratiko eta inklusiboak dituen supozioa, beraz, argudio onargarria da, noski.

- » «Beste antolaketa modu batzuk» aukera adinaren arabera segmentatuz gero, aldeak nabarmenak dira. Belaunaldi-arrakala hori, zer neurritan zor zaio (a) ordezkartzako demokraziari buruzko ulermen osagarri bati? ala (b) ordezkartzako sistemaren funtzionamenduarekiko gazteen gogobetetze-maila txikiagoari?

6. taula

Legitimitatea eta arazoak ebazteko lehentasun demokratikoak (%)

—ITURRIA

ArantzazuLab, 2023.
Egileek osatua.

	Demokratikak	Erregimen politikoa- rekiko lehentasuna egoeraren arabera	Erregimen politikoa- axolarik ez	Ez daki	Ez erantzun
Boto bidez hautatu.	60,9	38,3	44,4	43,7	18,2
Beste antolaketa mota batzuk.	32,9	55,0	45,3	29,7	72,7
Ez daki.	5,2	6,7	8,6	26,6	0
Ez erantzun.	1,0	0	1,7	0	9,1

Aldiz, demokrazia legitimatzen ez dutenen kasuan, erdiek inguruk bat egiten dute beste prozedura batzuk baliatzeko aukerarekin. Bestetik, ordea, «Demokrazia beste edozein gobernu mota baino hobea da» baieztapenarekin bat egin ez duten haien artean (% 11,6), heterogeneotasun handia egiaztatu dugu. Hamarretik bati buruz ari bagara ere, esanahia dutelakoan gaude, eta joera posible eta probableak iradokitzen dituzte, gure ustean. «Autoritarismoa egoera batzuetan egokiagoa da» aitortu dutenen artean, erdiek baino gehixeagok «beste antolaketa modu batzuk» erantzuna aukeratu dute (% 55), eta hamarretik ia lauk (% 38,3), berriz, parte-hartze elektoral lehenetsi dute; erregimen demokratikoa hobesten duten haiekin alderatuta (% 32,9 eta % 60,9, hurrenez hurren), aldeak nabariak dira. Bestetik, erregimen motak axolarik ez dietela erantzuten dutenen artean, lehentasunen arteko banaketa parekatua da (% 45,3 eta % 44,4). Azkenik, legitimitateari buruzko galderan «ez daki» erantzun dutenen artean, hamarretik lauk hauteskunde-sistema hobesten dute, eta hamarretik hiruk, berriz, beste metodo eta antolaketa batzuen alde egiten dute.

Erregimen politikoaren lehentasunak badu eragina metodoaren aukeraketan, beraz. Hori dela eta, legitimitateak ebazpenaren lehentasunean duen pisu erlatiboa ere aldatu egiten da (*ikus 2. irudia*).


2. irudia

Guztion arazoak ebazteko lehentasun demokratikoak. Erregimen politikoekiko lehentasunaren pisua (%)


—ITURRIA

ArantzazuLab, 2023.
Egileek osatua.

«Boto bidez ordezkariak aukeratzea»



«Beste antolaketa modu bat»





Arazoen ebazpenerako lehentasun ezberdinak uste osoari ala unean uneko balorazio politikoari zor zaizkion, auzi latentea da lan honetan. Ez da bereizketa makala. Hurrengo atalean hainbat argibide emango ditugu. Jarraian, baina, lehentasun ezberdin horiek demokraziarekiko orientazio afektiboarekin zer lotura duten azalduko dugu¹⁴.

Korrelazio hori ikertzeko asmoarekin, lotura afektiboa neurtzeko bi aldagai hartu ditugu kontuan. Erabaki politikoetan eragina izateko aukeraz galdetuta («Zure ustez, zenbatean uzten die sistema politikoak zu bezalako herritarrei politikan eragina izaten?»), G5.), sentimendu negatiboak oso nabarmenak dira (*ikus 7. taula*): erdia baino gehiago (% 54,05) «Ezer ez» eta «Oso gutxi» aukerek metatzen dute, eta hamarretik hiru (% 29,82) «Zerbait» erantzun lausoan kokatzen dira.

Izugarri.	0,9
Asko.	5,2
Zerbait.	29,8
Oso gutxi.	39,5
Ezer ez.	24,6

¹⁴ Jakitun gara, noski, dimentsio normatiboa (G4) eta demokraziaren ebaluazioari eta afektuari buruzko dimentsioak (G5 eta G6) gurutzatuko ditugula; logika ezberdinei dagozkien jarrerazko dimentsioak, alegia. Bestetik, jakitun gara iritzi-giroak politikarekiko sentimenduetan pisuzko eragina duela. Azalpena deskriptiboa den heinean, arrisku hori gure gain hartzen dugu. Argia emateko helburua baizik ez dugu, gure hurrengo ikerketa-galderak definitu, eta analisi estatistikoak bideratzeko asmoak motibatuta, hain zuzen ere.

7. taula

Erabaki politikoetan eragina izateko gaitasuna. (%)

— ITURRIA

Arantzazulab, 2023.

Lotura afektiboa ulertzeko beste adierazle esanguratsu bat, hau ere efikazia politiko subjektiboari lotua, galdera honen bidez egin genuen: «Zure ustez, zenbatean axola zaie politikariei zu bezalako herritarrek pentsatzen dutena?» (G6). Kasu honetan ere, adostasuneko eskala baliatuta, hirutik bik (% 66,73) gaitzuste nabarmena adierazten du, baina hori gutxi ez, eta % 29,82ak «Zerbait» erantzun du, gainera (*ikus 8. taula*).

Izugarri.	0,3
Asko.	4,4
Zerbait.	28,6
Oso gutxi.	35,7
Ezer ez.	31

8. taula

Politikariek herritarrengan jarritako arretaren hautematea. (%)

— ITURRIA

Arantzazulab, 2023.

Azken batean, bi galdera horiek (G5 eta G6) alienazio politikoaren sentimendua hedatua eta trinkoa dela azalerazten digute¹⁵. Demokrasiaren balio instrumentalekin batera, demokrasiaren oinarrian ideia-ingar nagusien artean askatasun politikoa, herritarren autogobernua, parte hartze efektiboa, ordezkariak, berdintasuna, eragin-gaitasuna dauden heinean, efikazia politikoari loturiko sentimendu negatibo horiek ezintasun politiko subjektibo baten adierazleak dira, gutxien-gutxienik.

Kasu horretan, politikagintzaren esperientzia bizitu hori (edo demokrasiak bestelako etorkizun partekatuek irekitzeko eragozpenari zor zaion frustrazioa), askatasun politikoaren arteko ezberdintasun funtsezkoaren seinale izan daiteke¹⁶; kultura politikoak iradokitzen digu autogobernuaren gauzatzea eta ordezkariaren printzipioa (herritarren interesak, balioak, aspirazioak, desirak ordezkatzeko eta bateratzea) krisian daudela (ikus 9. taula). Bi adin-talde gazteenetan politikarekiko sentimendu negatiboa aise handiagoa izaki, lanerako hipotesi aproposa da, ezbairik gabe.

Hori gutxi ez, eeta demokrasiari buruzko balio instrumentala (edo demokrasiaren balio estrinsekoa) hobesten duten haien kasuan, gero eta altuagoak izango dira mesfidantza handitzeko probabilitateak (errendimenduarekiko itxaropen-gabezia eta etsipena handitzeko arriskua, alegia). Eta esperientzia demokratiko hori dela eta, aukeretako bat baizik ez da prozedura demokratikoak zuzendu, egokitu, ireki edo bestelako prozesuak esperimentatzeko jarrerak sendotzea.

Bihuruneko moduko batean egon gaitezke, beraz. Izan ere, (a) herritarra pertsona geldia bada (desertorea, erretxindua, berekoia, uzurtua, depresiboa, etsaitua), edo (b) guztion zentzua bigarren maila batean utzi, eta alde bateko interesa, eskaera, sentimendua edo ideia soilik bilatzen bada (bilakaera oligarkikoa, korporatiboa eta populista komunitate zati horren sinbolismoak dira); kasu horretan (c) esperientzia partekatuen eta gizarteko erakunde ekonomiko, sozial eta politikoaren antolaera pluralaren galera mailakatu eta jarraitua dela eta, (d) politikarekiko jakinmina, orientazio arrazoizkoa eta besteekiko ardura lantzeko baldintza kultural eta instituzional mesedegarriak ere hondatu egiten dira, eta joera populista edo teknokratikoekin bat egiteko probabilitateak handitu.

¹⁵ Hori horrela, pertzepzio sozialaren arabera, auzitan leudeke demokrasiaren oinarriko arauak (erabakietan eragina izateko gaitasun eta berdintasun efektiboa, esate baterako). Horrez gain, ordea, errepresentazio politikoa (hautetsiek erabakiak aurrera eramateko eskumena eta ahalmena) susmopean ere egon liteke; jarrera sozialetan logika sistemikoa nagusitzen den balorazioa igarri daiteke. Azken unean, pertsonen berdintasuna ez ezik, askatasuna (edo nagusikeriarik eta esku-hartze bidegaberi ez izatea) auzitan ere egon liteke, iritzi sozialei kasu egitea behintzat.

¹⁶ Przeworski, A. (2010): *Democracy and the Limits of Self-Government*. Cambridge: Cambridge University Press.

9. taula	Boto bidez	Beste antolaketa	Guztira
G5. (Herritarren eragina) eta G6. (Politikarien arreta) galderen batezbestekoa G4. galderan emandako erantzunaren arabera ¹⁷ .			
Eragina.	1,3	1,0	1,2
Politikarien axola.	1,2	0,9	1,1

— ITURRIA
ArantzazuLab, 2023.
Egileek osatua.

¹⁷ Taula honetan gure lagina bi taldetan banatu dugu, G4. oinarri hartuta: «Boto bidez ordezkariak aukeratzea» eredu demokratikoagoa dela esan dutenak eta «Beste antolaketa mota» baten alde agertu

direnak. Talde bakoitzaren batezbestekoak kalkulatu ditugu, 0tik 4ra doan eskala batean (0 «Ezer ere ez», 1 «Oso gutxi», 2 «Zerbait», 3 «Askok» eta 4 «Izugarri»), auzi banarekin gurutzatuta:

politikan eragina izateko gaitasunaren balorazioa (G5) eta politikariak herritarren kezkei arreta ipintzeari buruzko balorazio soziala (G6); taulan lagin osoaren batezbestekoak ere erakusten ditugu.



Alde horretatik, erabaki politikoan eragina izateko aukerari eta politikariek herritarren iritziei kontu egiteari buruzko galderak direla eta, adin-tarteak eta generoak ez du eragin sendorik. Ezberdintasun gutxi batzuk nabaritzen dira, baina baieztatu daiteke demokrazia konbentzionalarekin -edo alderdi politikoen arteko hauteskunde-lehiarekin- bat egiten duten haien kasuan ere, altua dela sentimendu politiko negatiboa.

Horren osagarri modura, beste hau ere baieztatu daiteke: ordezkartzako hauteskunde-sistema auzitan ipini, edo behintzat beste eredu bat lehenesten dutenen artean, profil argi eta bereizgarri bat osatzeko modurik ez dago, beraz. Behin-behineko lehen emaitza hori bat dator gure abiapuntuko hipotesiarekin. Gainontzean, alienazio politikoaren sentimendua, beraz, orokor samarra da, nahiz eta aldeak egon; eta afektu horrek sentimendu sakonak ditu oinarrian, gainera.

- » Ordezkartzako hauteskunde-sistema auzitan ipini, edo behintzat beste eredu bat lehenesten dutenen artean, ez dago profil argi eta bereizgarri bat osatzeko modurik. Alienazio politikoaren sentimendua orokor samarra da, nahiz eta aldeak egon; eta afektu horrek sentimendu sakonak ditu oinarrian, gainera.

Legitimitate demokratikoaren indizea oso altua den neurri berean, funtzionamenduekiko nahigabea eta osagai nagusiekiko gaitzusteak ere esanguratsuak dira¹⁸. Demokraziaren etorkizunari buruzko ezkortasuna (a) epe motzeko gertakarien balorazio negatiboari atxiki ohi zaio; baina adierazi genezake haren errendimenduekiko mesfidantza, gero eta gehiago, (b) gizartearen eraldatzeko gaitasun mugatuari buruzko pertzepzio sozialean datzala. Azken unean, hautematen da prozesu demokratikoak zailtasunak dituela guztion auziak eta etorkizuneko aukera ekitatiboak formulatu eta garatzeko. Gure ustean, arazoak ebazteko metodo eta prozesuei buruzko lehentasunen arteko aldean, horrek pisu esplikatiboa izan dezake. Bien bitartean, iritzi sozialean, lerroartean bederen, berdintasun printzipioari garrantzia ematen zaiola ere ondoriozta genezake.

¹⁸ Eastonek proposatu zuen bereiztea (a) balio demokratikoekiko babes lausoa (governu-formaren legitimitatea) eta (b) demokraziaren funtzionamenduekiko gogobetetzea (errendimenduekiko pertzepzio negatiboa). Easton, D. (1965): *A Systems Analysis of Political Life*. Chicago: University of Chicago Press.

03 — Parte-hartze demokratikoei buruzko jarrerak

Galderetako baten abiapuntua honako hau da (G7): «Demokrazia sinesgarria izan dadin, bertan bizi diren pertsonak...», eta hiru item gaineratzen dira, hiruak ere, eskala nominal batean, bi kategoriatan banatuta («Bai» eta «Ez»), eta bietako bat aukeratzeko eskatzen da (*ikus 10. taula*). Hiru itemen artean partaidetzazko inplikazioa, jarraitutasuna eta intentsitatea ezberdina da.

Hiru itemetako lehenengoak honela dio: «Ordezkarien aukeraketan parte-hartzea ezinbestekoa da». Horrek badu bere garrantzia, ezen demokraziari loturiko jarraibideen artean, hurbilketa instituzionalistetan behintzat, bozkatzeko aukera berdina eta efektiboa irizpide nagusietako bat baita; pertsonaren askatasun politikoa ordezkarien aukeraketak sinbolizatzen du, prezeski. Demokraziaren balio intrintsekoa edo berezkoa ere argudio horretan funtsatu izan da. Hamarretik bederatziren ustez, demokrazia sinesgarria izango bada, ezinbestekoa da ordezkaritza politikoen aukeraketan parte hartu ahal izatea.

Gerta liteke, noski, erantzun berean jarrera ezberdinak aintzakotzat hartu beharrean egotea. Izan ere, batzuek alderdien hauteskunde-lehia arduraz jokatzeko betekizun politiko gisa ikusten duten bitartean (erantzukizuna, obligazioa), bestetuek herritarrari zor zaion babes legaltzat interpreta dezakete (eskubidea). Lehen item horren erantzuna beste era honetara ere interpreta daiteke: ordezkaritza politikoak, ezinbestean, hauteskunde garbieran eta parte-hartze efektiboan oinarritua behar du egon.

Nolanahi den, datuen argitan, adostasun normatibo zabaleko premisa da, inondik ere; jarrerazko erantzunen argitan bederen, «ordezkarien aukeraketan parte hartzea» demokraziaren ezinbesteko propietatea dela adieraz liteke (nahiz eta, gurean, eroldaren hamarretik seik baliatzen duten duten gaitasun hori alderdi politikoen arteko hauteskunde-lehian parte hartzera deitzen digutenean).

10. taula
Demokraziaren sinesgarritasuna eta parte-hartzearen bizitasuna. (%)

— ITURRIA
ArantzazuLab, 2023.
Egileek osatua.

	Bai	Ez	ED / EE
Ordezkarien aukeraketan parte hartzearen ezinbestekoa da.	91,9	2,8	5,3
Norberak lehen pertsonan parte hartzea, zuzenean eragiten dioten gaitetan.	78,5	16,1	5,4
Gai horiei buruzko erabakiak hartzea, banaka edo taldean.	81,5	12,9	5,6



Demokrazia sinesgarria izate aldera, herritarrei erantzuteko eskaini zaizkien beste bi aukerek babes apalagoa izan dute. Hamar eta hamahiru puntuko aldea (baiezkoen eta ezezkoen artean banatua, gainera) nabarmentzekoa da, ez baita portaerei buruz galdetzen (adibidez, ordezkari politikoekin foro lege-gile batean parte hartzeko prest dauden), baizik eta formulazio normatiboei buruzko jarrerak ezagutu nahi ditugu. Horrek iradoki dezake prozesu parte hartzaileen aldeko iritziak, neurri batean behintzat, deskontentuekin eta desafkezioarekin lotuagoak daudela, parte hartzeko gogo eta asmoek eraginda baino¹⁹; hipotesi gehientsuenak irekita daude, momentuz behintzat.



Hamarretik ia zortzik demokraziaren sinesgarritasuna pertsona erantzulearekin eta parte hartzeko gaitasunak izatearekin lotzen duten arren, ardurak hartzeko joera apalagoak iradoki dezake prozesu parte hartzaileen aldeko iritziak deskontentuekin eta desafkezioarekin lotuagoak daudela, parte hartzeko gogo eta asmoek eraginda baino.

Guztia esatera, hamarretik ia zortzik demokraziaren sinesgarritasuna pertsona erantzulearekin eta parte hartzeko gaitasunak izatearekin lotzen dute. Egin kontu demokrazia —edo ideal demokratikoaren bururatzea— pertsonak, herritar aske, kontziente eta arduratsu garen aldetik, guztion auzi ekonomiko, kultural eta politikoetan parte hartzean datzala. Alde horretatik, herritarren arteko elkarbizitzari loturiko hiru auzi horiei buruzko baldintza publikoetan demokrazia -ideal bezala- hobestea egoki jotzen da. Alabaina, hiru itemen arteko alderaketak pertsonaren ardura eta erantzukizuna interpretatzeko aukera irekitzen digute. Ildo horretan, demokraziaren sinesgarritasuna parte-hartze arduratsuko batekin lotzeko hipotesia lausotu egiten da, hiru aukeren arteko konparaketari —eta datu orokorreari— arreta ipinita bederen; plano enpirikoan, berriz, gurean, aise nabarmenagoa da, gainera, bizitzaren pribatizazioa, eszeptizismo politikoa eta jokaera pragmatikoa.

Adin-taldean eta generoaren efektuari arreta ipintzen badiegu (*ikus 11. taula*), ordea, ezberdintasun batzuk nabarmendu daitezke. «Ordezkarien aukeraketan parte hartzea ezinbestekoa da» itemari dagokionez, baiezkoari atxikitzen zaion erantzun-tasa oso altua da (% 91,9), baina emakumezkoena (% 94,8) gizonezkoena (% 89,1) baino ia sei puntu altuagoa; horrek lotura izan dezake arazoak ebazteko lehentasunetan ikusi dugun ezberdintasunarekin. Gainera, bigarren eta hirugarren itemetan ere, sei puntu altuagoak dira emakumeek baiezkoaren alde emaniko erantzunak. Gizonek eta emakumeek gobernantza berritzeko aukerei buruz lehentasun ezberdinak dituztela planteatu liteke; gizonezkoen kasuan, ostera, sentimendu negatiboen aurreko erreakzioak pisu handixeagoa izan dezake.

¹⁹ Mchugh, D. (2006): Wanting to be heard but not wanting to act? Addressing political disengagement. *Parliamentary Affairs*, 59 (3): 546-552.

Bigarren atalean eginiko hainbat galderaren erantzun partzial bat topatu dugu: emakumezkoek sistema parlamentarioa gehiago babesten dute, baina bestelako parte-hartze moduak ere bai. Gai honek, jakina, arreta gehixeago merezi du; emakumeen kasuan, demokrazia konbentzionala hobetzeko premia, ordezkagarritasuna handitzeko, eta demokraziaren prozedurak berritzeko lehentasuna igar daitezke.

11. taula

Parte-hartzeari buruzko jarrerak. (%)

—ITURRIA

ArantzazuLab, 2023.

Egileek osatua.

	Ordezkarien aukeraketan parte har dezaten ezinbestekoa da.			Norberak lehen pertsonan parte hartzea, zuzenean eragiten dioten gaietan.			Gai horiei buruzko erabakiak hartzea, banaka edo taldean.		
	Bai	Ez	ED / EE	Bai	Ez	ED / EE	Bai	Ez	ED / EE
Guztira	91,9	2,8	5,3	78,5	16,1	5,4	81,5	12,9	5,6
GENEROA									
Gizon	89,1	3,5	7,4	75,4	17,0	7,6	78,7	13,7	7,6
Emakume	94,8	2,8	5,3	81,5	15,1	3,4	84,4	12,1	3,5
ADIN-TARTEAK									
18-29	94,6	3,4	2,0	82,5	15,1	2,4	90,1	7,4	2,5
30-45	95,5	2,3	2,2	86,2	11,6	2,2	91,6	6,2	2,2
46-64	94,2	3,9	1,9	83,2	14,9	1,9	81,9	15,9	2,2
≥ 65	84,7	1,8	13,5	63,8	22,2	14,0	65,6	20,3	14,1
ERREGIMEN MOTA									
Demokrata	92,9	2,1	5,0	79,0	15,8	5,2	81,5	13,2	5,3
Autoritarioa	86,7	8,3	5,0	80,0	15,0	5,0	86,7	8,3	5,0
Axolarik ez	83,8	10,3	5,9	77,8	17,1	5,1	82,9	11,9	5,2
Ez daki	84,4	4,7	10,9	64,1	21,9	14,1	75,0	10,9	14,1
Ez erantzun	90,9	9,1	0	72,7	27,3	0	90,9	9,1	0
ARAZOAK EBAZTEA									
Boto bidez	92,7	1,6	5,7	74,5	19,5	6,0	78,0	15,8	6,2
Beste antolaketak	92,4	4,7	2,9	87,3	9,8	2,9	89,5	7,5	3,0



Adin-tartearen efektua ere nabarmentzekoa da (*ikus 11. taula*). Alde batetik, «Ordezkarien aukeraketan parte har dezaten ezinbestekoa da» aukerak du babes handiena adin-tarte guztietan demokrazia sinesgarri izateko. Bigarrenik, 65 urtetik gorakoen kasuan, hiru itemetan zalantza handiagoa egiten da (hamar-hamabi puntu altuago), parte hartzeko eredu ezberdinekiko lehentasuna aise txikiagoa da, eta arrakala handitu egiten da eredu partehartzeko intentsitatea eta konpromisoa handitu ahala (aldeak ia hogeita bost puntukoak izateraino). Hirugarrenik, «Norberak lehen pertsona parte hartzea, zuzenean eragiten dioten gaietan» eta «Gai horiei buruzko erabakiak hartzea, banaka edo taldean» itemetan hainbat ezberdintasun dago: 46-64 adin-tarterako bietan portzentajeak antzerakoak badira (% 83,2 eta % 81,9), 18-29 eta 30-45 adin-tarteetan pisu handiago du bigarren aukerak, eta eurenak dira portzentaje altuenak, gainera.

Emaitza horiek direla eta, beste behin, gai horietan gehixeago ikertzeko premia nabarmentzen zaigu; esate baterako, adin-tarte arteko alde horiek aldaketa kulturala (belaunaldi-efektua) iradokitzen ote duten, eta gazteak, jarrerazko erantzunetatik harago, parte hartzeko nahia eta desioa ere iradokitzen ari ote diren. Edonola ere, adin-tarteak demokraziari buruzko ulermenean efektu nabaria duela igar daiteke.

Bien bitartean, adinaren eta generoaren arteko gurutzaketak hainbat kontu argitzen dizkigu (*ikus 12. taula*). Ordezkarien aukeraketan parte hartzea dela eta, adin-talde guztietan emakumeek adostasun-maila handiagoa erakusten dute; alde nabariak adin-talde nagusietan eta gizonezkoetan igar daitezke, ordea. Bigarren itemean ere («Norberak lehen pertsona parte hartzea, zuzenean eragiten dioten gaietan») joera bera igar daiteke, eta emakumezkoek demokrazian bestelako parte-hartze eredu bidetik sakontzea babesten dute; horrez gainera, ordea, azpimarratzea merezi du 18-29 urte bitarteko artean emakumeek hamar puntuko aldea ateratzen dietela gizonezkoek (gizonezkoen artean 30-44 bitartekoak gailentzen dira). Hirugarren itemean («Gai horiei buruzko erabakiak hartzea, banaka edo taldean»), adin-taldeak du efektu handiagoa.

- » Nabarmentzekoa da adin-tartearen efektua demokraziari buruzko ulermenean. Emaitzek aldaketa kulturala (belaunaldi-efektua) iradokitzen ote duten, eta gazteak, jarrerazko erantzunetatik harago, parte hartzeko nahia eta desioa ere iradokitzen ari ote diren gehixeago ikertzeko premia nabarmentzen zaigu.

12. taula

Parte-hartzeari buruzko jarrerak. Adin-taldeak eta generoa. (%)

— ITURRIA

ArantzuLab, 2023.
Egileek osatua.

	Ordezkariei aukeraketan parte har dezaten ezinbestekoa da.			Norberak lehen pertsona parte hartzea, zuzenean eragiten dioten gaietan.			Gai horiei buruzko erabakiak hartzea, banaka edo taldean.		
	Bai	Ez	ED / EE	Bai	Ez	ED / EE	Bai	Ez	ED / EE
EMAKU-MEZKOAK									
18-29	97,0	2,0	1,0	87,7	10,3	2,0	91,3	6,7	2,0
30-45	96,3	2,0	1,7	87,0	11,3	1,7	90,8	7,5	1,7
46-64	96	1,6	2,4	85,2	12,3	2,5	82,7	14,5	2,8
≥ 65	90,2	2,9	6,9	66,9	25,8	7,3	74,5	17,8	7,7
GIZO-NEZKOAK									
18-29	92,4	4,8	2,8	77,6	19,5	2,9	89,0	8,1	2,9
30-45	94,7	2,6	2,7	85,5	11,9	2,6	92,4	4,9	2,7
46-64	91,7	7,0	1,3	80,5	18,3	1,2	80,9	17,8	1,3
≥ 65	80,1	0,9	19,0	61,1	19,3	19,6	58,1	22,3	19,6

Kontuan hartzeko beste efektu bat demokraziaren babes-mailari loturiko jarrerari dagokio (*ikus 11. taula*). Erregimen politiko demokratikoarekin bat egiten duten haien kasuan, demokrazia sinesgarriagoa izango bada, ezinbestekoa da ordezkariei aukeraketan parte hartzea (% 92,6), baina besteen kasuan ere, jarrera orokorra da.

Bestalde, demokraziaren aldeko babesa adierazi ez duen % 11,6aren kasuan, denetarik erantzunak ematen dizkiete honako item hauei: «Pertsonalki parte hartu behar dute, betiere zuzeneko eragina badute gaietan» eta «Gai horiei buruzko erabakiak hartu behar dituzte, izan banaka, izan taldean»; arazoak ebazteko lehentasunetan ere joera ezberdin hori berretsi dugu. Erregimen politiko autoritarioaren aldeko jarrera erakutsi dutenen kasuan, gainera, % 86,7ak baiezkota adierazi du «Gai horiei buruzko erabakiak hartu behar dituzte, izan banaka, izan taldean» itemean. Aldeak txikiak dira, baina ñabardura berriak biltzeko aukera ematen digute, orain arteko beste datuak ere gogoan izatera (% 11,6 horren kasuan), patroia bat ikus daitekeelako.

Hiru itemek, nolerebait, intentsitate eta erantzukizun-maila ezberdineko hiru parte-hartze modu alderatzeko balio digute. Jarraian, hiru itemak arazoak ebazteko moduekiko lehentasunarekin (botoa ala beste antolaketak)



gurutzatu ditugu, prozedurazko hautuak zer-nolako efektua izan dezakeen ezagutzeko asmoarekin (*ikus 11. taula*). Pentsa genezake «Ordezkarien aukeraketan parte har dezaten ezinbestekoa da» esaldiarekin adostasun-maila handia adieraztea, «Boto bidez ordezkariak aukeratzea» lehenetsi izan duten haien kasuan aurkitzea, eta halaxe izan; baina sinesgarritasun-irizpide harekin bat egiten dute bestelako antolaketa bat hobesten dutenek ere.

Aldiz, arazoak konpontzeko «Beste antolaketa motak» aukeraren aldeko jarrera erakutsi duten haien kasuan, pentsa zitekeen beste bi itemetan nagusituko zirela, eta uste hori bete egin da: % 87,3ko babesaz azaldu diote «Norberak lehen pertsonan parte hartzea zuzenean eragiten dioten gaietan» itemari, eta % 89,5ekoa, berriz, «Gai horiei buruzko erabakiak hartzea, banaka edo taldeka» itemari. Hor bi kontu azpimarratu daitezke. Alde batetik, ordezkariak konbentzionalarekin bat egiten dutenekin alderatuz, hamar puntutik gorakoa da aldea bi itemen kasuan. Lan honetan konstante batzuk argi samar egiazta daitezke. Bestetik, ordea, «Beste antolaketa motak» aukeratzeko dutenen artean, % 12,07 eta % 10,5 ez dator bat «zuzenean eragiten dioten gaietan» eta «gai horiei buruzko erabakiak hartzea, banaka edo taldean» itemekin, hurrenez hurren. Portzentaje altuak izan ez arren, beste behin heterogeneotasuna azpimarratzeko —edo, behintzat, ñabardura egiteko— balio dute.

Printzipioak, eraginkortasuna eta irizpide zientifikoak

— 04

Eztabaida publikoan boladan egoten dira gobernuen eraginkortasuna, demokrazia, erabakiek kontu egin beharreko balioak, adituen papera, teknokrazia, edota esperientziaren garrantzia, besteren artean. Sarri askotan, ideia horien arteko lehia eta konkurrentzia ere lerroburu bilakatzen dira; egoera nahasietan eragin ohi dute gure arreta, baina erabaki gehientsuenetan argitu daiteke haietako bakoitzaren pisu erlatiboa gutxi-asko. Zalantzarik gabe, demokraziari buruzko ulermenak ezberdintze aldera, berebizikoa da ideia horiei buruzko jarrerak eta lehentasunak ezagutzea.

Galdetegiko hainbat galdera eta item lagungarri zaizkigu gaiari argia emateko:

- 1 Galderetako batek (G15) gobernuak lehenetsi beharreko ezaugarria bi aukera baztertzaileraren artean hautatzea eskatzen du: «Printzipioak eta balioak izatea, nahiz eta oso eraginkorra ez izan» (% 73,3) ala «Eraginkorra izatea, nahiz eta printzipiorik eta baliorik ez izan» (% 20,8); % 5,5 batek ez du erantzun.

-
- 2 Bigarren galdera batek (16G) honela dio: «Zein agintari mota lehenesten duzu gobernu baterako?». Kasu honetan ere, bi aukeren artean hautatzea eskatzen da: «Balioak eta ideiak ardatz hartuta gizartea hobetu nahi duena» (% 54,9) ala «Esperientzia duen agintaria eta lan alorrean bere esperientzia lantzeko gai dena» (% 39,7); % 5,4ak ez du erantzun. Bigarren galderak dimentsio praktiko nabarmenagoa du; erantzunetan halaxe igarri da, eta lehentasunak ere banatuagoak daude.
-
- 3 Gaia lantzeko hirugarren bide bat 17. galderako lehen itema da (17.IG): «Gobernuek irizpide zientifikoetan eta adituen irizpideetan oinarrituta hartu beharko lituzkete erabakiak» itemarekin adostasun-maila adieraztea eskatu dugu. Erantzunak erabatekoak dira: % 82,1ak «Bai» hautatu du, eta % 12,2ak, berriz, «Ez»; % 5,7ak ez du erantzun.

Hiru galderak izaera ezberdinekoak dira, gaiaren konplexutasunaren adierazgarri; iritzi sozialetan ere hiru galderak bereizteko gaitasuna eta joera berrets daiteke.

Hiruen artean lehenengoari dagokionez (*ikus 13. taula*), agerikoa da demokraziari -politikari, orokorrean- eskuzabal izan dadin eskatzen zaiola; politikak aukera edo etorkizun normatibo bat izan dezala, edo nahiago bada, etorkizunak tankera irekiagoa izan dezala eta errealismo hutsean galduko ez dena



Demokraziaren ezaugarri formalak eta prozedurazkoak gutxietsi beharrik gabe, demokraziari buruzko ikuspegi sakonago bat, edukiei lotua, esploratzeko aukera zabaltzen zaigu. Ulermen sozialak aztergai ditugun aldetik, demokrazia etorkizun ekitatiboak irekitzearekin lotzeko lehentasunak arreta merezi du.

²⁰ Brennan, J. (2016): *Against Democracy*, Princeton: Princeton University Press.

²¹ Sunstein, R.C. (1995): *Democracy and the Problem of Free Speech*. New York: Free Press; Sunstein, R.C. (1999): *Free Market and Social Justice*. New Jersey: Princeton University Press.

Demokraziaren oinarritzko ezaugarri bat ere azaleratzen digu: sistema politiko demokratikoetan -erakundeetan- gizarteko interesak, sentimenduak, esperientziak ordezkatzeko bilatzen da; hori ez da nahastu behar eraginkorra izatearekin, ez eta ere gehien dakien gutxiengo batek politikari buruzko erabakiak hartzearekin (epistokrazia)²⁰. Ordezkaritzako sistemen helburu nagusia herritarren interes, balio, aspirazioei kontu egitea da. Azken batean, demokrazian herritarrak (a) bere gizarte-ereduarekin bat datorrena hautatzen du; aukeraketa (b) ezagutzan oinarritzea eta (c) erabakia eraginkortasunean funtsatzea ez dira preseski demokrazia sistema politiko berezia egiten duten bi ezaugarri²¹.



Lehen galderari ematen zion erantzunak, neurri batean behintzat, sustraiko ideia horrekin bat egiten du; demokrazietan balioetan datza gobernu eta herritarren ezaugarri bereizlea (arrazoian sinestea eta gizarteari buruzko kezka izatea, alegia). Hortik begiratu, bestetik, demokraziaren ezaugarri formalak eta prozedurazkoak gutxietsi beharrik gabe, demokraziari buruzko ikuspegi sakonago bat, edukiei lotua, esploratzeko aukera zabaltzen zaigu.

Demokraziari buruzko ulermenak aztergai ditugun aldetik, datu horiekin zera iradoki genezake: demokrazia ortzimugen irekitzean datzala. Horrek, neurri batean, nahigabea eta desafekzioa esplikatzeke pista berria ematen digu; halako etsipen bat igar daiteke: bitarteko izan beharko luketen neurri eta estrategiak, azken helburu bilakatzen ari diren sentimendua orokorra baltz bezala. Alde horretatik, lanerako hipotesi bezala, zera formulatu daiteke: gobernuak printzipio eta balioei kontu egiteko lehentasuna, agian, gizarteko beste eremuak sendotu, gizarte zibilak ere ardurak hartu, elkarteei askatasun eta lehiarako aukerak ugaritu, edota erantzukizunak partekatzeko seinalea dela. Hipotesi ausartegia (herrigilea) da, baina gobernuak demokraziari eta autogobernuari kontu gehixeago egiteko desio soziala, behintzat, iradoki genezake.

Emakumeen kasuan, errealitate soziopolitikoaren izaera kontingentea aitortzeak edo gauzak beste era batekoak izateko grinak babes handiagoa du (ez da gutxietsi behar hamar puntu baino gehiagoko alde); generoak efektu nabaria du, ezen emakumeen kasuan eraginkortasun hutsak babes txikiagoa baitu, eta zalantza egitea ere baxuagoa baita.

	Generoa		Adin-tarteak				Guztira
	♂	♀	18-29	30-45	46-64	≥ 65	
Printzipioak eta balioak izatea, nahiz eta oso eraginkorra ez izan.	67,6	79,8	75,6	71,6	75,4	72,8	73,7
Eraginkorra izatea, nahiz eta printzipiorik eta baliorik ez izan.	24,9	16,8	22,0	26,2	22,1	13,7	20,8
Ez daki / Ez erantzun.	7,5	3,4	2,4	2,2	2,5	13,5	5,5

13. taula
Gobernu baten ezaugarriak. (%)

— ITURRIA
ArantzazuLab, 2023.
Egileek osatua.

Adin-taldeak efektu oso txikia du. Bi salbuespen errepikatzen dira: alde batetik, 65 urtetik gorako kasuan, zalantza egiteak pisu erlatibo handiagoa du, eta horrek aldeak sortzen ditu; bestetik, 30-45 urte bitarteko kasuan, eraginkorrak izateko lehentasuna lau puntu handiagoa da.

Guztiarekin ere, galderak (15G) beste gai bat irekitzen digu. Izan ere, inkesta askotan demokraziaren babes-maila neurtzeko «gobernua balio demokratikoak dituena» eta «erregimen autoritarioa, eraginkortasun ekonomiko handikoa» aukeren artean hobestea eskatu ohi da²². Alde horretatik, gazteen artean, erregimen politiko demokratikoarekiko poztasun-maila txikiagoa printzipioak eta balioak lehenestearekin nola-hala konpentsatuta geratzen den galdetu daiteke; aukeren espazioak ireki nahiko balituzte bezala.

Horri, partzialki bada ere, argia emateko asmotan, adin-taldeak generoaren arabera bereizi ditugu (*ikus 14. taula*). Emakume gazteak dira printzipio eta balioei kontu egitea gehien lehenesten dutenak; adin-talde guztietan emakumeak nagusitzen dira (hamar eta hamabost puntu arteko aldearekin, gainera). Gizonezkoen artean, adin-taldeak efektu oso apala du. Gazteen artean (18-29) igar daiteke generoen arteko alde handiena; banaketa ezberdin hori oso kontuan hartzekoa da. Azkenik, pertsona helduenen artean ere, gizonezkoen artean zalantza egitea (% 18,67), emakumezkoen aldean (% 7, 27), bikoitza baino gehiago da. Beste behin ere, datu orokorrak aldagai soziodemografikoen arabera segmentatzea zeinen garrantzitsua den jabetu gaitezke.

14. taula

Gobernu baten ezaugarriak. Adin-taldeak eta generoa. (%)

— ITURRIA

ArantzazuLab, 2023. Egileek osatua.

	18-29	30-45	46-64	+65
EMAKUMEZKOAK				
Printzipioak eta balioak izatea, nahiz eta oso eraginkorra ez izan.	83,6	78,1	79,6	78,9
Eraginkorra izatea, nahiz eta printzipiorik eta baliorik ez izan.	14,9	20,5	17,3	13,8
Ez daki / Ez erantzun.	1,5	1,4	3,1	7,3
GIZONEZKOAK				
Printzipioak eta balioak izatea, nahiz eta oso eraginkorra ez izan.	68,0	65,3	69,7	67,8
Eraginkorra izatea, nahiz eta printzipiorik eta baliorik ez izan.	28,7	31,7	28,6	13,5
Ez daki / Ez erantzun.	3,3	3,0	1,7	18,7

²² Schedler, A. & Sarsfield, R. (2007): Democrats with Adjectives: Linking Direct and Indirect Measures of Democratic Support. *European Journal of Political Research*, 46: 637-659.



Generoaren efektua adin-taldeetan alderatuta, emakume gazteak dira printzipio eta balioei kontu egitea gehien lehenesten dutenak; eta adin-talde guztietan emakumeak nagusitzen dira gai honi dagokionean.

Gainontzean, «Demokrazia beste edozein gobernu mota baino hobea da» aukera hobetsi ez dutenen artean (% 11,6), zera ikus daiteke: autoritarismoaren aldekoen artean, erdia ageri da printzipioak eta balioak hobestearen alde; «Axolarik ez» (% 64,1), «Ez dakit» (% 65,6) eta «Erantzunik ez» (% 72,7) aukerek, ostera, babes handiagoa ematen diote. Erregimen politiko demokratikoa babesten duten haien kasuan, berriz, % 75,22a printzipio eta balioen alde ageri dira; demokrazia legitimatzen dutenen artean, laurden batek ipintzen du eraginkortasuna balioen aurretik.

Gurutzaketa horiek, beste kasuetan bezala, legitimitatearen efektua berresten dute, beraz; legitimitateak ordezkari politikoan eta honen sendotzean du pisua. Ostera, beste lehentasun politikoek mobilizazio kognitiboa ahulagoa, interes oso apala, eta adituen aldeko posizio nabamenagoa adierazten dute. Zentzua du populismoaren eta teknokraziaren arteko harremanari buruz galdetzeak. Bestetik, baina, agian politika teknokratikoen; agian, baina, politika teknokratikoen babesa ez zaio zor mesfidantza instituzionalari, baizik eta politikarien gaitasun mugatu eta jokabide bidegabeen hautemate sozialari. Ildo horretatik, ikus liteke harreman negatiboa dagoela legitimitate demokratikoaren eta aukera teknokratikoaren artean; talde sozial batekiko atxikimendua izateak ere antzera eragiten du²³.

Printzipio eta balioei buruzko galderak argi pixka bat eman dezake, baina demokraziari buruzko jarrerak eta ulermenak aztertzerakoan, bere edukiaz zurrak izan behar dugu; besteak beste, zein printzipio eta baliori buruz ari garen argitzea falta zaigu (gerta liteke printzipio eta balioei buruzko ikuspuntu kontrajarriak egotea; memoria, ideia, sentimendu, interes, nahimen ugari dagoen seinale).

Bestalde, gobernuko agintariaren ezaugarriari buruz galdetuta (16G), bi aukeren arteko aldea aise txikiagoa da, eta esperientziari eta jarduera profesionalari ere garrantzia ematen zaio (*ikus 15. taula*). Galderak ordezkari sistemen kalitateari egiten dio keinu. Agintari motaz galdetuta, jarrera errealistak pisua hartzen du (% 39,7), eta helburuak lortu daitezkeen bitartekoei kontu egitea, neurritasuna, moderazioarekin jardutea, ezagutzen arteko lehia, ulermenean eta arrazoiketari oinarritzea, eta

²³ Norris, P. (arg.) (1999): *Critical Citizens: Global Support for Democratic Government*. New York: Oxford University Press.

15. taula Agintari mota. (%)	Generoa		Adin-tarteak				Guztira
	♂	♀	18-29	30-45	46-64	≥ 65	
—ITURRIA ArantzazuLab, 2023. Egileek osatua.							
Balio eta ideiez baliatuz, gizartea hobetu nahi duten pertsonak.	50,7	59,2	52,1	52,9	60,2	54,0	54,9
Esperientzia duten pertsonak eta lan- alorrean euren esperientzia lantzeko gai direnak.	41,9	37,4	45,4	45,0	37,5	32,5	39,7
Ez daki / Ez erantzun.	7,4	3,4	2,5	2,1	2,3	13,5	5,4

errealitatearen printzipioa onartzea (ontzat jo ala ez) nabarmentzen dira. Nolabait esateko, ezagutza eta esperientzia praktikoa gehixeago nabarmendu, konplexutasunaren jabe egin, eta horizonte normatibo eta ideologikoak estutu bezala egiten dira; jakin egin behar, jarrera errealista lehenesten duten horien kasuan, bokazioaren jakin egin behar bokazioaren kudeaketa profesionala soilik eskatzen den, ordea²⁴.

Ikuspuntu teoriko eta kontzeptualetik begiratuta, bi galderek (15G eta 16G) zentzu propioa eta ezberdina dute, eta galderei emaniko erantzunetan ere biak bereizteko joera igar daiteke; bi galderen artean bereizketa egiteko gaitasuna eta lehentasuna igar genezake, beraz. Emaitzak ezberdintzen diren aldetik, zentzuzkoa deritzogu jarrera sozialetan zuhurtziak hartzen duen pisua nabarmentzeari. Horren arabera, agintariak eraginkortasunari kontu egitea askatasunaren aldaera bat da, eta honako hauek eskatzen ditu: egiaren eta ongiaren bilaketan arriskuak hartzea, errealitatearen zentzua, jakinmina, arrazoiak ematea, adi eta kritikari irekita egotea, aukeratu ahal izatea, bitartekoei arreta ipintzea. Azken batean, gobernuei balioak eta printzipioak kontuan har ditzaten adieraztea osagarria da agintariak eraginkortasunari ere kontu egitearekin²⁵.

Ikusita gobernuei eta agintariei printzipioak eta balioak lehenets ditzaten eskatzen zaiela (bien arteko korrelazioa oso altua da, eta % 48ak bi kasuetan printzipio eta balioen alde egin du), baina agintariak esperientzia izateak ere babes esanguratsua duela, zera galde genezake: jarrera-hartze horiekin bat ote datozen ordezkari politikoak hautatzeko irizpideak eta arrazoiak.

Esan bezala, galdera horrek (16G) badu mamia, ezen gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko aldea, ostera ere, portzentajezko ia 10 puntukoa da; hor badago zer esploratu eta hausnartu. Adin-tarteari dagokionez, berriz, bi talde gazteenek (18-29 eta 30-45) garrantzi gehixeago ematen diote esperientziari; ezberdintasun nabariena helduenen ez-erantzute tasa altuagoa da, ostera ere.

²⁴ Achen, C.H. & Bartles, L.M. (2016): *Democracy for Realists*. Princeton: Princeton University Press.

²⁵ Gangl, A. (2007): Examining Citizens' Beliefs that Government Should Run Like Business. *Public Opinion Quarterly*, 71 (4): 661-670.



Biztanleriako segmentu gazteenetan irizpide pragmatikoen gailentzeak iradoki dezake demokrazietan parte hartzea (soziala eta elektoral) ezberdintzen ari dela; ikusi egin behar adin-kohorteak ala hezkuntza-mailak duen pisua, ala adin-kohortean estatus sozialak eragina duen (azken batean, pertsona-taldeen erabakiak orokorrean razionalak dira, eta horregatik gailentzen dira irizpide ezberdinak). Politikaren —eta politiken— ulermen ezberdin bat ere izan daiteke; politikarien zeregina —teknikariekin lankidetzan— aterabide teknikoek kudeaketa izan dadin proposatzen da.

Hortik begiratuta, bi aukera ezberdin daitezke: (a) eredu teknokratikoarekin bat egin, prozesu politikoak aterabide teknikoetara bideratu, erabakiguneetan adituak ezarri, eta legitimitate-iturri bezala inpartzialtasuna eta eraginkortasuna hobesten dira; (b) politika publikoen diseinuan euren balioei, aspirazioei, interesei, beharrezari arreta gehiago ipintzea eskatzen dute (euren pertzepzio soziala delako gehiengoaren arauak gizarteko beste segmentu batzuei mesede egiten diela). Argitzea merezi du, ezen demokraziaren bi ulermen ezberdin ere izan baitaitezke²⁶.

Agintari motari buruzko jarrerak adin-taldea eta generoa gurutzatuta aztertuz gero (*ikus 16. taula*), kasu guztietan datuak gehixeago sakabanatzen dira, aurreko galderarekin (15G) konparaketa eginda. Edonola ere, gazteen artean arazoak ebazteko prozesu politiko mixtoek eta arduradunen prestakuntza tekniko hobegoak babes handiagoa du; ordezkartza sistema erreformatzeko bi lehentasun esanguratsu ere badira, zalantzarik gabe. Hori esanda, ordea, generoak beste behin efektu nabaria du, nahiz eta emakumeen artean adinaren efektua aise apaldu. Bi adin-talde gazteenei arreta ipiniz gero, gizonen eta emakumeen artean ezberdintasun esanguratsua berretsi dugu, ostera ere (hamabi puntu inguruko aldea, kasu honetan).

	18-29	30-45	46-64	+65
EMAKUMEZKOAK				
Balioak ideiak	58,5	58,0	60,8	58,9
Esperientzia	40,0	40,6	36,1	33,5
Ez daki / Ez erantzun.	1,5	1,4	3,1	7,6
GIZONEZKOAK				
Balioak ideiak	46,2	47,8	59,3	50,0
Esperientzia	50,5	49,2	39,4	31,6
Ez daki / Ez erantzun.	3,3	3,0	1,3	18,4

16. taula
Agintari mota. Adin-taldek eta generoa. (%)

— ITURRIA
Arantzazulab, 2023.
Egileek osatua.

²⁶ Hibbing, J.R. & Theiss-Morse, E. (2002): *Stealth Democracy. Americans' Beliefs about How Government Should Work*. Cambridge: Cambridge University Press.



Orokorrean, **governuei eta agintariei printzipioak eta balioak lehenets ditzaten eskatzen zaie, baina agintariek esperientzia izateak ere babes esanguratsua du.** Gazteen artean, aldiz, arazoak ebazteko prozesu politiko mixtoek eta arduradunen prestakuntza tekniko hobegoak babes handiagoa du.

Hirugarren galderak (17.IG) zera gaineratzen digu: hamarretik zortzik bat egiten du «Governuek irizpide zientifikoetan eta adituen irizpideetan oinarrituta hartu beharko lituzkete erabakiak» baieztapenarekin. Galdera ezberdinei emaniko erantzunak osagarriak izan daitezkeen seinale, emakumezkoek esaterako, balio eta printzipioen aldeko jarrera sendoa erakutsi arren, hamarretik zortziren kasuan irizpide zientifikoaren alde ere egiten dute (ikus 17. taula).

17. taula
Irizpide zientifikoak. (%)

— ITURRIA

ArantzazuLab, 2023.
Egileek osatua.

	Generoa		Adin-tarteak				Guztira
	♂	♀	18-29	30-45	46-64	≥ 65	
Bai	81,3	82,9	83,9	86,9	83,0	75,3	82,1
Ez	10,7	13,7	13,6	10,9	14,7	10,2	12,2
Ez daki / Ez erantzun.	8,0	3,4	2,5	2,2	2,3	14,5	5,7

Hirugarren galderak badu garrantzia. Izan ere, gaur egunean, lehenetsun politikoak (falazia eta baliabide erretorikoak eskutik hartuta, askotan) balioekin eta koherentzia moralarekin nahasteko tentazioa nabarmena izaki, guztia interpretaziora murriztu eta interpretazio guztiak parekotzat jotzeko interesa ere badago. Alabaina, datuek zera dioskute: egiara hurbiltzeko eta zaletasun erlatibista saihesteko lehenetsun soziala aski nabarmena da; egia probarekin, metodoarekin, zuzenketarekin, egiaztatzearekin lotzen da, eta gobernuetako erabakiek prozedura horri kontu egiteak babes handia du (% 82,1); adituei uko egin ala adituek erabakiak hartu baino, erabakiak hartzerakoan herri-agintariek adituei ere arreta ipintzeak du babesa.

Bestalde, ordea, hiru galderak kontuan hartzen baditugu, nola-halako zentzu komun bat ere erradiografiatu genezake: (a) demokraziak printzipio eta balioei kontu egin behar die, (b) askatasuna eta erabakimena landu, (c) gobernari eta herritarrei dagokie modu aske, kontziente eta arduratsuan erabakiak hartzea, baina (d) errealitatea aitortuz, eta erabakiak zuzendu edo

27 Archer, M. (2007): *Making Our Way Through the World. Human Reflexivity and Social Mobility*. Cambridge: Cambridge University Press.



hobetzeko asmo batekin, (e) etengabeko aldaketen prozesuan murgildua, eta (f) deliberaziora eta besteen azalpen zentzuzko, arrazoitu eta kritikoak ulertzera -eta ikastera- irekiak egonik (erabaki operatiboak), (g) balioek -edo boterearen egiak, aurreiritzi eta emozioek, ikuspegi tolesgabe eta idealismoek, borondate handi eta gogotsuek- ez gaitzaten egiatik, askatasunetik, esperientzia demokratikotik urrundu; trebetasun kognitibo eta jarrera afektibo batzuk, azken unean²⁷.

Demokraziak legitimitate altua izan arren, krisi politikoaren hautematea ere orokorra izatearekin bat dator interpretazio trinko hori. Ildo horretatik, (a) adituen ezagutzak eta gaitasunak balorazio positiboa merezi du; baina gobernu eta herri-agintariei eskatzen zaie (b) noranzkoa ezartzea eta (c) aukera sozio-tekniko ezberdinak ulertu eta erabaki estrategikoak hartzeko gaitasun kritikoa izatea. Beste era batera esanda, ordezkartzako sistemaren erreforman balioak eta interesak beste era batera ordezkatzeko ere lehenesten da.

	Printzipioak vs. Eraginkortasuna		Balioak eta ideiak vs. Esperientzia		«Gobernuek irizpide zientifikoetan eta adituen irizpideetan oinarrituta hartu beharko lituzkete erabakiak»		
	Printzipioak	Eragin-kortasuna	Balioak	Esperientzia	Bai	Ez	ED / EE
ERREGIMEN MOTA							
Demokrazia	75,2	24,8	56,2	43,8	82,3	12,2	5,4
Egoeraren arabera							
Axolarik ez	64,1	35,9	42,7	57,3	82,9	10,3	6,8
Ez daki	65,6	34,4	54,7	45,3	71,9	15,6	12,5
Ez erantzun	72,7	27,3	63,6	36,4	72,7	18,2	9,1
ARAZOAK EBAZTEA							
Boto bidez	74,6	25,4	54,7	45,3	81,5	12,2	6,3
Beste antolaketak	73,9	26,1	55,6	44,4	84,1	13,0	2,9

18. taula

Erabakien izaera. Erregimen motarekiko eta arazoak ebazteko moduarekiko lehentasunak. (%)

— ITURRIA

ArantzazuLab, 2023. Egileek osatua.

05 —

Laburbiduz, (a) hiru galdera egin dira, gaiaren konplexutasunaz jabetu, eta dilema modu aberatsagoan ulertzeko; (b) jarrera sozialetan hiru galderak ezberdintzen jakin izan da; eta, ostera ere, (c) demokrazia ordezkarietako harremanean funtsatzen dela aitortu eta berretsi da, (d) nahiz eta herri-ordezkarien egitekorik behinena den herritarren balio eta interesak eta adituen ezagutzak artikulatzea.

Erregimen politikoen inguruko lehentasunak (G1) efektu esanguratsuak ditu printzipio eta irizpideei buruzko jarreretan (*ikus 18. taula*). Arazoak ebazteko lehentasunaren (G4) efektua ere neurtu dugu, eta, kasu horretan, ostera, banaketak ez dira batez-besteko orokorretik nabarmen ezberdintzen.

28 Galdetegian, bestetik, galdera hau ere egin da: «Demokrazia egon dadin, zure ustez, honako esaldi hauetatik zein da nahitaezkoa?» (9G); eta erantzunekin emaitza hauek lortu dira: «Ordezkariek hautatzeko askotariko alderdiei botoa emateko aukera izatea» (% 9,8); «Herritar guztiak diru-sarrera duina izatea» (% 29,9); «Norberak pentsatzen duena beldurrik gabe esateko eskubidea izatea» (%16,6); «Gutxiengoetik errespetua izatea» (% 6); «Pertsona guztiak berdintzen dituen sistema judiziala izatea» (% 32,8); «Beste bat» (% 1,8); «ED» (% 2,4). Galdera horietan, hurrengo lan batean demokraziari buruzko ikuskerak ezberdintzeko ahalegin berezia egingo dugu.

29 Europa mailan egiten den soziometro garrantzitsuenetako baten (*European Social Survey*) azken txostenean, antzeko galdera bat aurkeztu dute. Kasu horretan, batezbestekoak zertxobait baxuagoak badira ere, demokraziaren nahitaezko elementuen aldeko babesak da altuena, eta 2012 urteko datuekin alderatuz gero, egonkortasuna igar daiteke. Ikus Ferrín Pereira, M., Hernández, E. & Landwehr, C. (2023): «Understandings and Evaluations of Democracy: Topline results from rounds 6 and 10 of the European Social Survey». ESS Topline Results Series, Issue 13.

Joko demokratikoaren propietateak

Jarraian, eta bukatzeko, beste galdera honi ipiniko diogu arreta: «Zuretzat demokrazia zer den kontuan izanik, baloratu honako esaldi hauek...»(G10). Oti (guztiz kontrakoa) 10era (ezinbestekoa) doan eskala batean, esaldiarekiko adostasun-maila zehaztea eskatzen da (*ikus 19. taula*). Eskala hori erabiliz, itemen artean demokraziaren propietate eta printzipio bereizle batzuk eta hainbat balio intrintseko eta instrumental alternatu ditugu. Inkestako galdera luze eta mamitsuena da; baina, orain arte bezala, analisi estatistikoak egitera iritsi aurretik, azalpen deskriptibora mugatu, eta lehen argibide orokorrak aurreratuko ditugu.

Datu orokorrek item guztietan batezbesteko oso altuak berresten dituzte. Edonola ere, itemen artean badaude ezberdintasunak; gure ustean, balorazio horien arteko aldeak ez dira ausazkoak, eta bi kategoriatan sortu ditugu, multzokatzeak egin eta ezberdintasunak hobeto esploratzeko: alde batetik, «demokrazia egon dadin nahitaezkoak diren elementuak», eta, bestetik, «prozesu politikoan aurkitu daitezkeen forma ezberdinak».

Demokrazia baterako nahitaezkoak diren elementuen artean, honako hauek hautatu ditugu: «eskubideak eta askatasunak bermatzea», «herritarren ongizate ekonomikoa bermatzea», «komunikabide independenteak egotea», «governua kontrolatzeko mekanismoak egotea», «jokabide ustelik ez izatea» eta «justizia denontzat berdina izatea». Igar daitezkeen moduan, lehen multzokatze horretan, demokrazia liberalari, sozialari eta prozeduralari atxiki ohi zaizkien elementu oso ezberdinak daude²⁸. Galderako beste elementu guztiak «prozesu politikoan aurkitu daitezkeen forma ezberdinak» bezala sailkatu ditugu, ezen demokraziaren funtzionamenduan eragiten baitute, baina legitimitate demokratikoa auzitan ipintzera iritsi gabe.



	Batezbestekoa	Desbideratze tipikoa (DT)	ED / EE
Justizia denontzat berdina izatea.	9,8	0,8	0,1
Jokabide ustelik ez izatea.	9,7	1	0,1
Eskubideak eta askatasunak bermatzea.	9,5	1,1	0,1
Herritarren ongizate ekonomikoa bermatzea.	9,3	1,2	0,1
Gobernua eraginkortasunez kontrolatzeko mekanismoak egotea.	9,3	1,3	0,1
Komunikabide independenteak egotea.	9,0	1,5	0,2
Erabaki politikoak herritarrengandik hurbilen dauden erakundeetan erabakitzea.	9,1	1,3	0,2
Arduradun politikoak gizartetik hurbil egotea.	9,0	1,5	0,1
Edozein pertsonak hauteskundeetan aurkezteko aukera berdinak izatea.	8,4	2,2	0,1
Hauteskundeak, gure ordezkariak aukeratzeko formula gisa.	8,3	2,1	0,1
Kolektibo minoritario batzuk, hala nola atzerritar jatorriko pertsonak, gobernura iritsi ahal izatea.	8,2	2,3	0,2
Hauteskundeetara aurkezten diren alderdien artean, gobernuan txandakatzeko aukera egotea.	7,9	2,3	0,6
Herria ordezkatzeko tresna gisa alderdi politikoak egotea.	7,7	2,3	0,1

19. taula

Demokraziaren propietateak (adostasun-maila 0tik 10erako eskalan).

— ITURRIA

Arantzazulab, 2023.
Egileek osatua.

Taldekatze horiek eginda, datu orokorrek bestelako mezu bat igortzen digute. Demokrasiaren nahitaezko elementu bezala ulertzen diren elementu haiek dira batezbesteko altuenak lortzen dituztenak (guztiak ere 9tik gorako batezbestekoarekin)²⁹. Aldiz, prozedurazko elementuen artean, halako batezbestekoa «Erabaki politikoak herritarrengandik hurbilen dauden erakundeetan erabakitzea» itemak soilik erdiesten du; pisu afektibo esanguratsuko adierazlea da, inondik ere. Itemei buruzko desbideratze tipikoek ere joera hori berresten dute, eta «Erabaki politikoak herritarrengandik hurbilen dauden erakundeetan erabakitzea» eta «Arduradun politikoak gizartetik hurbil egotea» itemen kasuan ere joera berezia igar daiteke.

Hortik begiratuta, demokrasiaren ulermen ezberdinetan, erregimen politiko bat demokratiko izendatzeko nahitaezko zat jotzen diren elementuek babes-maila oso altua dutela iradoki genezake, beraz. Bada aipatzea merezi duen elementu bat; alegia, «Hauteskundeetara aurkezten diren alderdien artean, gobernuan txandakatzeko aukera egotea». Izan ere, hamahiru itemen artean batezbesteko baxuenekoa du. Taldekatzeak egiterakoan prozedurazkoen artean multzokatu dugu; baina, zalantzarik gabe, gobernu-kontrollean alternantzia egotea (hauteskundeak lehiakorrek izatearen aldaera bat den heinean) da eredu demokratiko nagusituaren oinarritzko pilarea. Alde horretatik, merezi du nabarmentzea item horrek 7,95eko batezbestekoa eta 2,32ko desbideratze tipikoa dituela. Zalantzarik gabe, itemak izan dezakeen bilakaera kontuan hartu beharko dugu, neurri batean behintzat, herritarren konpromiso demokratikoaren adierazle esanguratsuetako bat izan daitekeelako³⁰.



Bi kategoria sortu ditugu: «demokrazia egon dadin nahitaezkoak diren elementuak» eta «prozesu politikoan aurkitu daitezkeen forma ezberdinak». Taldekatze horiek eginda, demokrasiaren ulermen ezberdinetan, erregimen politiko bat demokratiko izendatzeko nahitaezko zat jotzen diren elementuek babes-maila oso altua jaso dute.

³⁰ Ildo horretan, alderdi politikoen sinesgarritasun-krisia eta herritarrek zein elkarteek agenda politikoa kontrolatzeko gaitasun urria izatearen pertzepzio orokorra ere sintoma esanguratsuak dira, eta proiektzioak egiteko bi adierazle inportante gaineratzen zaizkigu. Gai horiei, baina, hurrengo lan batean helduko diegu.

Gizonezkoen eta emakumezkoen artean, orokorrean, aldeak ez dira nabariak, nahiz eta emakumezkoek orokorrean balorazio altuagoak eskaintzen dituzten. Bestetik, gizonezkoen kasuan, erantzunetan nabariagoa da desbideratze tipikoa, kasu askotan, erantzunen sakabanekate nagusiagoa dela adieraziz (*ikus 20. taula*).

Adin-taldee dagokienez, berriz, adin-tarte guztietan berresten da bi multzo handien arteko aldea esanguratsua dela (*ikus 21. taula*). Guztiarekin ere, talde nagusian handiagoa da hauteskunde-sistemarekiko eta alderdi



	Gizon		Emakume	
	Batezbestekoa	DT	Batezbestekoa	DT
Justizia denontzat berdina izatea.	9,4	1,1	9,6	1,0
Jokabide ustelik ez izatea.	9,2	1,3	9,5	1,0
Eskubideak eta askatasunak bermatzea.	9,3	1,3	9,3	1,3
Herritarren ongizate ekonomikoa bermatzea.	9,0	1,5	9,0	1,6
Gobernua eraginkortasunez kontrolatzeko mekanismoak egotea.	9,7	1,0	9,7	0,1
Komunikabide independenteak egotea.	9,7	0,8	9,8	0,8
Erabaki politikoak herritarrengandik hurbilen dauden erakundeetan erabakitzea.	7,6	2,4	7,9	2,2
Arduradun politikoak gizartetik hurbil egotea.	8,9	1,6	9,1	1,5
Edozein pertsonak hauteskundeetan aurkezteko aukera berdinak izatea.	8,2	2,2	8,4	2,0
Hauteskundeak, gure ordezkariak aukeratzeko formula gisa.	8,5	2,2	8,4	2,2
Kolektibo minoritario batzuk, hala nola atzerriar jatorriko pertsonak, gobernura iritsi ahal izatea.	7,9	2,5	8,0	2,1
Hauteskundeetara aurkezten diren alderdien artean, gobernuan txandakatzeko aukera egotea.	8,1	2,3	8,2	2,3
Herria ordezkatzeko tresna gisa alderdi politikoak egotea.	9,0	1,5	9,2	1,2

20. taula

Demokraziaren propietateak. Generoaren efektua (adostasun-maila 0tik 10erako eskalan).

—ITURRIA

ArantzazuLab, 2023. Egileek osatua.



21. taula

Demokraziaren propietateak. Adin-tartearen efektua (adostasun-maila 0tik 10erako eskalan).

—ITURRIA

ArantzazuLab, 2023. Egileek osatua.

	18-29		30-45		46-64		≥ 65	
	Batezbestekoa	DT	Batezbestekoa	DT	Batezbestekoa	DT	Batezbestekoa	DT
Justizia denontzat berdina izatea.	9,7	0,9	9,8	0,8	9,8	0,9	9,7	0,7
Jokabide ustelik ez izatea.	9,7	0,9	9,8	0,9	9,7	1,1	9,7	1,1
Eskubideak eta askatasunak bermatzea.	9,5	1,0	9,6	0,9	9,5	1,2	9,4	1,1
Herritarren ongizate ekonomikoa bermatzea.	9,3	1,2	9,4	1,2	9,3	1,4	9,4	1,0
Gobernua eraginkortasunez kontrolatzeko mekanismoak egotea.	9,1	1,3	9,4	1,2	9,3	1,4	9,3	1,3
Komunikabide independenteak egotea.	8,7	1,7	9,1	1,4	9,1	1,6	9,1	1,4
Erabaki politikoak herritarrengandik hurbilen dauden erakundeetan erabakitzea.	9,0	1,4	9,1	1,4	9,0	1,5	9,2	1,1
Arduradun politikoak gizartetik hurbil egotea.	8,7	1,6	9,1	1,4	9,0	1,8	9,0	1,3
Edozein pertsonak hauteskundeetan aurkezteko aukera berdinak izatea.	8,2	2,2	8,7	2,1	8,5	2,2	8,3	2,3
Hauteskundeak, gure ordezkariak aukeratzeko formula gisa.	8,0	2,2	8,1	2,2	8,4	2,3	8,7	1,8
Kolektibo minoritario batzuk, hala nola atzerriar jatorriko pertsonak, gobernura iritsi ahal izatea.	8,5	2,0	8,6	2,1	7,9	2,5	7,8	2,5
Hauteskundeetara aurkezten diren alderdien artean, gobernuan txandakatzeko aukera egotea.	7,9	2,2	8,1	2,3	7,7	2,5	8,1	2,2
Herria ordezkatzeko tresna gisa alderdi politikoak egotea.	7,6	2,4	7,7	2,3	7,6	2,5	8,0	2,1



politikoekiko atxikimendu afektiboa. Belaunaldi gazteenek, oster, minorien inklusioarekin adostasun-maila handiagoa eta homogeneoagoa erakusten dute. Kontuan hartzeko beste elementua da 18-29 adin-tartean «komunikabide independenteak egotea» esaldiari emandako babes nabarmen baxuagoa dela; bitartekaritzako erakunde tradizionalen krisiaren sintoma bat, ziurrenik.

Demokraziaren propietate ezberdinekiko adostasun-maila erregimen politikoei emaniko babesarekin ere konparatu dugu (*ikus 22. taula*). Erregimen politiko-demokratikoa babesten dutenen kasuan egiaztatu ditugu elementu ezberdinekiko batezbesteko altuenak eta desbideratze tipiko txikiak; haien balorazioetan, nabaria da bi multzo nagusien arteko ezberdintasuna ere.



Badira egoeraren arabera erregimen autoritarioa hobesten dutenak, Joera hori ulertzeko premia dugu

Nabarmentzekoa da, erregimen politikoaren legitimitateaz galdetuta, «Demokrazia beste edozein gobernu mota baino hobea da» aukera hobesten ez dutenen kasuan (% 11,6), patroi orokorrak antzerakoak izan arren, itemen balorazioetan batezbestekoak txikiagoak direla, eta desbideratze tipikoak altuagoak, legitimitate demokratikoa babesten dutenekin alderatuta. «Egoera batzuetan, erregimen autoritarioa hobea izan daiteke demokratikoa baino» aukera hobesten dutenak soilik bereiziz gero, berriz, bi ondorio nabarmendu daitezke: alde batetik, talde horren erantzunak, desbideratze tipikoei arreta ipiniz gero, homogeneoagoak dira; bestetik, item askotan euren erantzunetan batezbestekoak altuagoak dira, eta erantzun kritikoenak ematetik urrun daude. Beste hainbat emaitzetan bezala, sendotu egiten da egoeraren arabera erregimen autoritarioa hobesten duten haien ezagutza hobea izateko premia, ez baitu bat egiten haiei buruzko ohiko iruditeria sozialarekin³¹.



22. taula

Ikus hurrengo orrialdea.

Lan osoan zehar, arreta berezia ipini diogu guztion arazoak ebazteko metodo demokratikoaren lehentasunari («Boto bidez ordezkariak aukeratzea» edo «Beste antolaketa modu batzuk»), haren efektua neurtze aldera. Demokraziaren propietate ezberdinei buruzko garrantziari dagokionez (*ikus 23. taula*), ikus liteke bi joeretako pertsonak bat egiten dutela «demokrazia egon dadin nahitaezkoak diren elementuak» kategoriarekin; geronek multzokatzeak ondo identifikatu ditugun seinale, bide batez. Bestetik, metodoekiko atxikimendu ezberdinak 'prozedura politikoan aurkitu daitezkeen forma ezberdinak' kategorian multzokatu ditugun elementuetan eragiten du efekturik esanguratsuena. Horrek ondorio bat azalertzeko balio digu: demokraziaren elementu nuklear batzuk daude, guztiontzat

³¹ Ikus Malka, A., Lelkes, Y., Bakker, B. N. & Spivack, E. (2022): Who Is Open to Authoritarian Governance within Western Democracies? *Perspectives on Politics*, 20 (3): 808-827. doi:10.1017/S1537592720002091

22. taula

Demokraziaren
propietateak.
Legitimitatearen efektua
(adotasun-maila 0tik
10erako eskalan).

— ITURRIA
ArantzazuLab, 2023.
Egileek osatua.

	Demokratak		Axolarik ez		Egoeraren arabera	
	Batezbestekoa	DT	Batezbestekoa	DT	Batezbestekoa	DT
Justizia denontzat berdina izatea.	9,5	1,0	9,1	1,4	9,3	1,2
Jokabide ustelik ez izatea.	9,4	1,1	9,0	1,6	8,8	1,9
Eskubideak eta askatasunak bermatzea.	9,3	1,2	8,8	1,7	8,9	1,5
Herritarren ongizate ekonomikoa bermatzea.	9,1	1,4	8,4	2,0	8,9	1,6
Gobernua eraginkortasunez kontrolatzeko mekanismoak egotea.	9,7	1,0	9,5	1,3	9,5	1,8
Komunikabide independenteak egotea.	9,8	0,8	9,6	1,0	9,6	1,1
Erabaki politikoak herritarrengandik hurbilen dauden erakundeetan erabakitzea.	7,9	2,2	6,6	3,0	7,4	2,5
Arduradun politikoak gizartetik hurbil egotea.	9,0	1,5	8,6	2,0	8,8	1,9
Edozein pertsonak hauteskondeetan aurkezteko aukera berdinak izatea.	8,4	2,0	7,3	2,8	7,7	2,6
Hauteskundeak, gure ordezkariak aukeratzeko formula gisa.	8,5	2,1	7,9	2,7	8,4	2,2
Kolektibo minoritario batzuk, hala nola atzerriar jatorriko pertsonak, gobernura iritsi ahal izatea.	8,0	2,3	7,5	2,6	7,7	2,5
Hauteskondeetara aurkezten diren alderdien artean, gobernuan txandakatzeko aukera egotea.	8,3	2,2	7,1	3,0	7,2	3,2
Heria ordezkatzeko tresna gisa alderdi politikoak egotea.	9,1	1,3	8,8	1,6	8,8	1,7



komunak eta partekatuak, baina badira mekanika eta prozedurari loturiko ezberdintasunak ere. Era berean, «Beste antolaketa mota batzuk» taldeari buruz, lehenago esanikoa berrets genezake: desbideratze tipiko altuagoak dituzte, kategoria politiko horretan heterogeneotasuna dagoen seinale, eta gutxien-gutxienik bi talde bereizteko premia iradokitzen digu.

	Boto bidez		Beste antolaketak	
	Batezbestekoa	DT	Batezbestekoa	DT
Justizia denontzat berdina izatea.	9,8	0,7	9,7	0,9
Jokabide ustelik ez izatea.	9,7	1,0	9,7	1,1
Eskubideak eta askatasunak bermatzea.	9,5	1,1	9,5	1,1
Herritarren ongizate ekonomikoa bermatzea.	9,3	1,2	9,3	1,3
Gobernua eraginkortasunez kontrolatzeko mekanismoak egotea.	9,3	1,2	9,2	1,5
Komunikabide independenteak egotea.	9,0	1,5	9,1	1,6
Erabaki politikoak herritarrengandik hurbilen dauden erakundeetan erabakitzea.	9,1	1,3	9,1	1,4
Arduradun politikoak gizartetik hurbil egotea.	9,1	1,4	8,8	1,8
Edozein pertsonak hauteskundeetan aurkezteko aukera berdinak izatea.	8,4	2,2	8,4	2,3
Hauteskundeak, gure ordezkariak aukeratzeko formula gisa.	8,9	1,5	7,4	2,6
Kolektibo minoritario batzuk, hala nola atzerritar jatorriko pertsonak, gobernura iritsi ahal izatea.	8,1	2,4	8,3	2,2
Hauteskundeetara aurkezten diren alderdien artean, gobernuan txandakatzeko aukera egotea.	8,1	2,2	7,6	2,5
Herria ordezkatzeko tresna gisa alderdi politikoak egotea.	8,2	1,9	6,9	1,6

23. taula

Demokraziaren propietateak. Arazoak ebazteko lehentasunaren efektua (adostasun-maila 0tik 10erako eskalan).

— ITURRIA

Arantzazulab, 2023. Egileek osatua.

06 — Ondorioak eta gogoetarako hainbat ideia

Lan honetan, «Demokraziari buruzko ulermenak gurean» inkestan guztion auziak ebazteko lehentasun demokratikoarekin lotuen dauden galderak hautatu ditugu. Labur-labur, hauek dira emaitza adierazgarrienak:

- 1 Gurean legitimitate demokratikoaren indizea altua eta orokorra da. Demokraziaren babes-maila hori, jakina, arrazoiketa oso ezberdinen arteko emaitza da. Edonola ere, adin-taldearen efektu txiki bat igar daiteke. Alde batetik, gazteenen artean hamarretik ia bi bestelako erantzunetan sakabanatu da (bestelako lehentasunen artean, sistema politiko ezberdinekiko indiferentzia nagusitzen da). Bestetik, demokraziak helduenen artean du legitimitate altuena (gainerakoan, helduenak oso nabarmen lerrokatzen dira ikuspegi minimalista eta formalarekin — hainbat galderatan—, eta eurenak dira aspirazio demokratiko apalena ere).

Guztion arazoak konpontzeko prozesu politikoei buruzko lehentasunetan, — bi ebidentzia nabarmendu daitezke. Alde batetik, hamarretik

- 2 seiren kontzepzio demokratikoa bat dator ordezkartzako eredu konbentzionalarekin; gehiengoarentzat, beraz, askatasun politikoa hauteskunde lehiakorrek sinbolizatzen dute. Bestetik, ordea, herenak demokrazia bestelako partaidetzazko prozesuekin lotzen du. Horrez gainera, zera ikusi dugu: adin-taldeak efektu nabarmena du guztion arazoak beste era batera konpontzeko lehentasunean (18-29 eta, bereziki, 30-45 adin-taldean kontzentratzen da, eta gizonezkoenganako joera txiki bat du). Demokraziaren alde agertu direnen artean, hamarretik seik alderdien demokrazia hobesten du; legitimitatea demokratikoa aitortzen ez duten haien kasuan, ostera, prozedura alternatiboek interes-maila altuagoa eta babes handiagoa dute. Hori esanda, bestelako antolaketen aldeko lehentasuna ere, jakina, demokraziari babesa adierazi dioten haiengan kontzentratzen da; lerrokatze politikoen sentimenduak (efikazia politikoen hautemate negatiboak eta desafekzioak) bezainbat deliberazio-prozesuak esperimintatu nahiak nahiak eragiten du orientazio hori, ordea.



Gurean legitimitate demokratikoaren indizea altua eta orokorra da. Demokraziak helduenen artean du babes altuena; gazteenen artean du sistema politiko ezberdinekiko indiferentziak pisu erlatibo handiagoa.



- Parte hartzeko ereduak jarraitutasun eta intentsitatearen arabera
- 3 bereiziz gero, aise nagusitzen da demokraziaren ezaugarri bereizle gisa ordezkari politikoen aukeraketan parte hartzea. Bestelako parte hartzeko mekanismoak ez dira hain beharrezko hautematen, nahiz eta, demokrazia sinesgarria izango bada, ardurak hartu eta erantzukizunez jokatzeko ere ezinbestekotzat jotzen den. Genero-efektua oso nabarmena da, eta parte hartzeko aukera guztien zilegitasunari babes handiagoa eskaintzen diote, adin-talde guztietan, eta bereziki gazteen artean. Adin-taldeak ere badu eragina, apalagoa, eta demokraziari buruzko kontzepzioen artean belaunaldi-arrakala egon daitekeela adierazteak egiantzekoa dirudi.
- Jarrera sozialetan, hamarretik zazpi bat datoz gobernuek printzipio
- 4 eta balioei kontu egiteko lehentasunarekin; demokrazia gauzak beste era batera izatea bilatzen duen erregimen politikoarekin lotzen den seinale. Genero-efektua oso nabarmena da, areago adin-talde gazteetan; gizonezkoen kasuan, adin-taldeak efektu txikia du (salbu eta, 65 urtetik gorako kasuan). Beste behin, demokraziaren babesari loturiko aukera ezberdinek erantzuna baldintzatzen dute (babesa erakutsi ez dutenek joera handiagoa dute eraginkortasuna lehenesteko).
- Gobernuen ezaugarriak eta agintarienak ezberdindu egiten dira.
- 5 Ziurrenik, agintariei buruz galdetzea erabakiak hartzearekin lotzen da, eta jarrera sozialetan, erabakiei eta erabakiei buruzko ebaluazioari dagokionez, garrantzia hartzen du ikuspegi pragmatikoak (hamarretik lauren kasua da). Edonola ere, aldagai soziodemografikoen arabera segmentatuz gero, hainbat ñabardura ikus daitezke: batetik, adinak badu efektua (bi adin-talde gazteenetan garrantzi handixeagoa eman zaio agintarien esperientziari eta jarduera profesionalari); bestetik, genero-arrakala nabarmena dago: emakumeen artean ohikoagoa da agintariak ere balioei garrantzia ematea, adin-talde guztietan, eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko alde handienak 18-29 eta 30-45 urteen artean igar daitezke. Generoen arteko ezberdintasunak ez daude soilik adin-talde nagusietan, eta, beraz, interpretazio klasikoak (emakume nagusien joera kontserbadorea) gutxienik berrikusi egin behar dira. Bestetik, 45 urtetik beherako artean generoak hainbat galderetan aldea markatzen duen heinean, gaur egungo sasoi historikoan, balio-aldaketen eztabaidan, arreta merezi duen auzia da konparatzea genero- eta belaunaldi-efektuen pisua, harremana eta intentsitatea.
-
- 6 Demokrazian etorkizunak ireki daitezzen, balio eta printzipioei garrantzia ematen zaie, eta emakumeen kasuan, gaur egunean, errealitatearen ulermen kontingenteak jarrera haiek sendotzen ditu. Era berean, ordea, iritzi horiek osagarriak dira gobernuek euren erabakietan irizpide zientifikoak kontuan hartzeko balorazioarekin. Egiaren eta askatasunaren bilaketak babes handia eta orokorra du; ez dago efektu berezirik eragiten duen aldagai soziodemografikorik edo bestelako lehentasun demokratikorik.

- Joko demokratikoa zein propietate eta baliorekin lotu ohi den galdetuta,
- 7 berriz, argi eta garbi bereiz daitezke ezinbestekotzat jotzen diren haiek, eta prozedurari eta funtzionamendu zehatz bati gehiago lot dakizkiokeenak; ordezkartzako demokrazia liberalak legitimitate altua du (galderak modu ezberdinean egin, eta galdetegi osoan konstante bat da), baina askatasun politikoa alderdi politikoen arteko hauteskunde-lehiari lotuen dagoen elementuetan babesa aise sakabanatzen da, esate baterako. Joera hori ere oso bat dator galdetegian ikusi ditugun beste hainbat datu orokorrekin, gainera. Horren interpretazioa, baina, gauza irekia da; lan honetan zehar, hipotesi ezberdinak formulatu ditugu, eta batzuek zentzu handiagoa dutela jabetu gara; merezi du horietan gehiago sakontzeak.

Datu orokorren lehen analisi deskriptiboak balio izan digu demokraziari buruzko jarrera eta lehentasun ezberdinak azalerratu, eta horien arteko bat-etortzeak eta desadostasunak identifikatzen hasteko. Ildo horretan, datuek aukera ireki digute hainbat ñabardura planteatzeko, adierazleak, sintomak eta kausak behin-behinean formulatzeko, eta lan berrietarako hipotesi eta galderak definitzeko. Jakina, datu gehiago eta sakonago landu behar ditugu. Alde horretatik, ezagutza hobea izan, demokraziari buruzko eztabaida bere neurrian ulertu eta jabeago izan, eta gaia ikuspegi desberdinetatik begiratzeko urratsak egiten jarraituko dugu. Galdetegiko datu orokor batzuen analisi deskriptiboa egin eta gero, zera esan genezake: gurean demokraziaren kontzepzio ezberdinak daudela adieraztea hipotesi onargarria da.

Badira eztabaidara irekitzea merezi duten auzi batzuk:

- 1 Demokraziari buruzko ikuspegi ezberdinak igar daitezke adin-taldeen artean. Ikerketa konparatuak baliogabetua du pertsona taldearen bizi-zikloaren efektua. Babes enpiriko handiagoa du belaunaldiaren efektuak, baina, jarrera sozialak ulertze aldera, sasoi historikoak eta ziklo politiko eta ekonomikoak ere badute garrantzia; demokraziaren ebaluazioan, sistema politikoaren funtzionamenduari eta berezko elementuei buruzko juizioek ez ezik, testuinguruko faktoreek eta horiei buruzko pertzepzio



Demokraziari buruzko ikuspegi ezberdinak igar daitezke adin-taldeen artean: 18-29 eta 30-45 urte bitarteko adin-taldeetan joera bereizleak igarri ditugu besteekin konparatuta; ordezkartzako sistemaren diseinu eta funtzionamenduarekin horiek adierazi dute kezka handiena, gurean ere.



sozialek ere pisu handia dute³². Galdetegian ikus daiteke 30-45 urte bitarteko adin-taldean patroio moduko bat, eta, agian, (a) demokraziaren ulermen ezberdin baten adierazgarri izan daiteke. Halere, gizarteko segmentu horretan igarri ohi da bizi-proiektuari buruzko espektatibetan kezkarik handiena. Hori dela eta, beste bi interpretazio gaineratu ditzakegu: (b) orainaldiaren ukazioa (samina, herra, gorrotoa) bainoago, segurtasunak eta aukerak galtzeko, eta galtzaile izateko beldurra, eta sakon-sakonean zentzuaren krisiaren seinalea agerikoa da; (c) gehiengoaren arauetan oinarrituriko erabaki politikoak direla eta, euren adin-multzoak (pertsone-talde ikasia, landuna, zergak ordaintzen dituenak, lana eta familia bateragarri egiten saiatzen dena) arreta gutxien merezi duen kezka, haserrea, egonezina igortzen ari zaizkigu. 18-29 urtekoen kasuan, datuak sakabanatuagoak daude, baina bi adin-talde horietan joera bereizleak igarri ditugu besteekin konparatuta; ordezkartzeko sistemaren diseinu eta funtzionamenduarekin horiek adierazi dute kezka handiena, gurean ere³³.



Adin-taldeak eta generoa gurutzatuta, emakume gazteak dira printzipio eta balioei kontu egitea gehien lehenesten dutenak; eta adin-talde guztietan emakumeak nagusitzen dira gai honi dagokionean.

- 2 Gazteen artean, gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak arrera merezi du; zera adieraz daiteke: gizonezkoetan eszeptizismoa, mesfidantza eta nahigabea nabarmentzen badira, emakumezkoen artean, akats instituzionalak aditzera eman eta orientazio afektibo negatiboak jakinarazteaz harago, politika ireki eta alternatibak bilatzeko joera handixeagoa nabaritu dugu. Egoera berrien aurrean emozioek bizi-espektatibetan eta erabaki politikoetan bete-betean eragiten dute; generoak (estatus soziala eta pertzepzio subjektiboa zertan ukatu gabe) ze garrantzi duen ebidentzia enpiriko gehiagorekin esploratu behar dugu. Bien bitartean, genero-banaketa eginez gero, hiru kontu bereiz daitezke: gizon-emakumeen artean alde nabariak daude; adin-talde ezberdineko emakumeen artean ohikoak eta esanguratsuak dira joera bertsuak; emakume gazteen jarrera eta ikuskeretan, generoak eta belaunaldiak zer pisu duten argitzeko premia egiaztatu dugu. Adin-taldearen garrantzi erlatiboa gutxietsi gabe, generoak (eta, horri lotuta, emakumeen artean, balio-sistema ezberdin baterako joerak) uste baino gaitasun argitzaile handiagoa izan dezake.
- 3 Gazteei buruzko datuak interpretatzeko modu asko dago. Hau da horietako bat: parte hartzeko modalitate ezberdinekiko atxikimendu

³² Caassen, C. & Magalhães, P.C. (2022): Effective Government and Evaluations of Democracy. *Comparative Political Studies*, 55 (5): 869-894.

³³ Foa, R.S., Klassen, A., Wenger, D., Rand, A. & Slade, M. (2020): «Youth and Satisfaction with Democracy: Reversing the Democratic Disconnect?». Cambridge: Centre for the Future of Democracy.

altua zer neurritan den sistema politikotik gero eta urrunago sentitzearen sintoma. Jarrerazko analisiak halako gogoetak egiteko aukera zabaltzen digu, noski; gogoeta kritiko bat ere egin daiteke: demokraziaren funtzionamenduak zer neurritan ematen dien gazteei aukera politikan eragiteko eta ordezkariak euren eskariak bideratzeko; desafekzioa esplikatzen duten bi adierazle oso inportante dira, noski. Nolanahi den, gazteen artean interes politikoaren eta balorazio kritikoaren artean igar daitekeen etenak eta tentsioak merezi du arreta gehixeago; jarrerazko dimentsio ezberdinak hobeto interpretatu, eta gurean demokraziari buruzko pentsaerak, sentierak eta portaerazko jarraibideak aurreikusteko. Ikerketa konparatuek erakutsi dute gazteen kasuan jarrera negatiboek polarizazio ideologiko altuagoa eta eskuin berriarekiko sinpatia eragiten dutela.

- Guztion auziak ebazteko lehentasun ezberdinak badu efektua
- 4 demokraziaren kontzepzioan, baina auresale edo iragarle gisa ahulagoa da. Alde batetik, taldeko antzekotasunak eta taldeen arteko ezberdintasunak ezarri ahal izateko, ezinbestekoak dira adierazle osagarriak, eta, kasu horretan, taldeen osaera soziopolitiko heterogeneoa da. Bestetik, adin-taldeak garrantzi berezia hartzen du. Hirugarrenik, alineazio politikoaren sentimenduak ere badu eragina ordezkartzako prozedura konbentzionalekiko zuhurtzian. Horren osagarri, baina, ordezkartzako demokrazia liberalaren osagaiak babes normatibo altua dute. Hori dela eta, prozedurei buruzko jarreraren arteko banaketa zerk eragiten duen gehixeago landu behar dugu: (a) orientazio afektiboak, (b) gobernuko alderdiekiko identifikazioak (ordezkatuak sentitzea eta eskaerak betetzeko aukerak hautematea) edota (c) ikuskera demokratiko ezberdinak, esate baterako.
-
- 5 Edonola ere, honaino iritsita, behin-behinean, hainbat galdera egiteko moduan gaude. Hauek dira horietako batzuk: prozedurazko ikuspegi kontrajarriek zer eragin duten alderdi politikoaren arteko lehiaren dinamikan edota hauteskunde-portaeran (egiatan, ze aukeraketa-irizpide baliatu ohi den ordezkariak hautatzerakoan: boto prospektiboa eta etorkizunerako gobernu-programa ote den kontuan hartzen duguna, ala gobernu-jarduera saritu edo zigortzea)³⁴; prozedurak berritu edota ugaritzeko grina inpotentzia demokratikoaren seinale den, eta sistema politikoaren erakunde nagusiekiko nahigabeari zor zaion (atxikitze koiunturala eta interesatua), ala deliberazioari berezko balioa aitortzeagatik lehenesten diren (demokraziaren matrize kultural eta politiko berezi bat). Bestalde, hamarretik ia seik lehenesten dute demokrazian ordezkariak boto bidez hautatzearen bidetik ebaztea guztion
- arazoak, baina horien artean pisu erlatibo handia dute nahigabeak eta
- 6 desafekzioak ere .

³⁴ Fearon, J.D. (1999): Electoral accountability and the control of politicians: selecting good types versus sanctioning poor performance, in Przeworski, A., Stokes, S.S. & Manin, B. (arg.): *Democracy, Accountability and Representation*, 55-97. Cambridge: Cambridge University Press; Harrington, J.E. (1993): The impact of reelection pressures on the fulfillment of campaign promises. *Games and Economic Behavior*, 5: 71-97.

Gaur egunean, hauteskunde-demokraziari osagarri zaio eraginkortasun subjektibo ahula (abstentzio-tasa adierazle bat baizik ez da); erregimen



politiko demokratikoa bere gain hartzen ari da kostu emozional handiak, eta, elementu kontingentea baino gehiago, ezaugarri kroniko bilakatu da. Ez dira nolanhiko auziak, eta, ziurrenik, gogoeta-lerroak demokraziaren ulermen ezberdinen araberakoak ere badira. Mataza beraren haria balitz bezala, hamarretik bederatzik hauteskundeak ezinbestekoak direla baieztatzen dute; baina, bestalde, gurean, abstentzioa hamarretik lau ingurukoa da. Bi legitimitate mota bereizten dira: bata normatiboa eta beste enpirikoa. Joera hain ezberdinekoak izaki, zera galde genezake: hauteskunde-sistema eta bere legitimazioa zer neurritan den parte-hartze tasaren menpekoa, ala hauteskunde-sistemak eta alderdien demokraziak berezko legitimitatea duten («partitokrazia»), zeinahi direlarik ere herritarren esperientzia politikoa, kultura bizitua, abstentzio-tasa eta horren aldakortasuna («dualtasun demokratikoa»). Demokraziari babesa eta poztasuna adieraztea bi jarrera ezberdin dira, baina bien arteko arrakala modu jarraituan ari da hazten; eta luzamendutan ibiltzea erabakitze modu bat ere bada.

Aurrera begira, aukera bat da galdetegiko beste adierazle batzuekin lan egin eta azalpen deskriptiboaren bidea urratzea, ulermenei buruzko hipotesia sendoago formulatzeko; ulermen horien konfigurazioan adin-taldeak eta generoak zer-nolako efektuak dituzten argitzea garrantzi bereziko bi kontu osagarri dira. Beste zeregin bat, berriz, ulermen horiek azaltzea da; horretan analisi estatistikoak aukera gehixeago emango dizkigu. Demokraziaren sasoia, kalitatea eta aukerak neurrian ebalua ditzagun, auzi garrantzitsuak dira demokraziari buruzko ulermenak ezberdintzea, horien konfigurazioan zein aldagaik duten pisu esanguratsua, haien inplikazioak zein diren, edota ulermenen arteko ezberdintasunak eta berauen intentsitatea eta sakontasuna ezagutzea.

**Andoni Eizagirre eta Asier Baztan
2023ko irailean.**

